

TOKIKOM karkara

Orioko eta Aiako aldizkaria
2011ko ekainaren 24a
301. zenbakia. 23. urtea



Alkate-makila eskuz aldatu da

Bilduren eta Orainen botoak eskuratuta, Beñat Solaberrieta aukeratu zuen alkate Orioko Udalbatza berriak ekainaren 11n egindako bilkura jendetsuan

04
Hasi bertsotan
Egoitz Eizagirre

10
Elkarrizketa
Imuntzo eta Beloki

14
Elkarrizketa
Igor Castro

22
Kritika
Xabier Lizaso

2GURPIL

Barruile 2 - 8-20010 Oriu (Alipizkoa)
 Tel: 943 554 900 www.2gurpil.com bigurpil@hotmail.com

SOLOZABAL
 autoeskola

Eusko Gudari, 30-1, ezk
 telef: 943 83 08 12

PERTSIANAK
 AYO MAZ

Aluminio, PVC
 Venezianak
 Motorrak...
 Tel: 943 83 01 Mugierria 600 70 52 27

uranga
 autozerbitzua

Aliprox

Eusko Gudari Telera 13-15
 ORIO
 943 83 38 75

INDO
 Garraio frigorifikoa
 NAZIONALA ETA NAZIOARTEKOA

Olaskoegia, 12 - Tel. 943 894 024 - Fax. 943 130 144 AIA-ORIO

AMILIBIA
 ONTZIOLEK, S. L.

lortu pertsona pribatu
 eta inoiz ezin izan
 gaituzteko teknologia
 aurreratuak

Olaskoegia, auzoa, 52
 34 943 83 08 29
 faxa 34 943 89 40 81
 amilibia@amilibia.com
 www.amilibia.com

Azkue

Tf: 943 13 04 38

Allianz

Marigre Zaldua
 aseguru agerilea

Euzko Gudari, 10 behe-ohia
 telefonoa: 943 13 47 80
 faxa: 943 63 67 52
 e-maila: zaldua.dolores.pa@allianz.es

eduzitologia
ANTILLA
gestioz

Norabizi Nagari, 2 - 47100 Oriu - 20 00

Kalkuladenda- Ume arropa

argine

www.lasernet.com/argine
 Tel: 943 13 48 89

25%^{ko} DESKONTUA FAMILIA
 UGARTEN TXARTELAREKIN

Igo zaituz haize berristoral!

Galerna

943890416 - 677149934
 galerna.oriu@hotmail.com

Carmen eta Txomin
 ARBARKOAN

943 83 05 37 / 943 83 27 47

Zaragueta
Eskola Orto

telefonoa: 943 89 40 52
 e-maila: 012137aa@hezkuntza.net

943 83 09 86

KOASTA

Wifi zerbitzua
 Koak, paku giro aparta...

Automóviles
ZARAUTZ

ETIKETA ZERBITZU ORJINALA

ZARAUTZ, Tel. 943 13 13 30

Dorronsoro Denda

1961etik zure enbuean

AUKERA HANDIAGOA
FRUTATEGIAN

Tel 943 83 09 37

ARKAITZ
Taberna

Pinxoak,
 plater konbinatuak
 eta ogitarleko mundialak

ABESIANI KALDEA
 Tel: 943 83 16 57

Elkartasunari jarriak

1

Presoen etxeok, presoen lagunak, askotan haiek dira ahazten ditugunak. Gaur ere zenbat dira bisitara junak? Errepide arrotzen kurba ezagunak, zuzenduko al ditu gure elkartasunak?

2

Nahiz ta aldatu diren lehengo molde zaharrak, Lehengo puntu berean hor darrai izarrak. Nahiz ta batzuk kanpotik nazkatu baztarrak, Biltzen baldin bagaitu helburu bakarrak, noizbait izango gera berriro naparrak.

301

karkara

Orioko eta Aiako aldizkaria

Kultur etxea
20810 Orio
943 83 15 27
karkara@karkara.com

Editorea

Karkara taldea
kultur elkarte

Zuzendaria

Ana G. de Txabarri

Erredakzio burua

Irati Agirreazaldegia

Erredakzio taldea

Pat Cowie,
Miren Etxeberria,
Iker Gurrutxaga, Eli Lasa
eta Jabier Zabaleta

Publizitatea

Pat Cowie

Publizitatearen diseinua

Lore Berasaluze eta
Iker Gurrutxaga

Festa-programaren diseinua

Iker Gurrutxaga

Testuen zuzenketa

Miren Etxeberria eta
Jabier Zabaleta

Ale honetako laguntzaileak

Egoitz Eizagirre,
Jose Karrera,
Xabier Lizaso eta
Asier Sarasola.

Laguntzaileak

Jon Agirresarobe

Diseinua

Danel Agirre Lertxundi

Banatzzaileak

Ane Murillo eta
Ander Beldarrain (Orioko)
Eli Irureta (Aia)

Inprimategia

Gertu Koop. E. (Oñati)
Lege gordailua SS-346/90
ISSN 1132-1105
Tirada 3.200 ale

KARKARAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen edota iritzien erantzukizunik. KARKARAN argitaratutakoa berreman daiteke, osorik edo zatika, baldin eta iturria aipatzen bada.



OAAM

PUBLIZITATE PREZIOAK**Iragarkia alero jarrita**

Modulu bat	12,00 €
Bi modulu	24,00 €
Hiru modulu	36,00 €
Lau modulu	48,00 €
Sei modulu	72,00 €
Zortzi modulu	96,00 €
Orrialde erdia	120,00 €
Orrialde osoa	204,00 €

Iragarkia behin jarrita

Modulu bat	16,00 €
Bi modulu	31,00 €
Hiru modulu	47,00 €
Lau modulu	64,00 €
Sei modulu	95,00 €
Zortzi modulu	127,00 €
Orrialde erdia	174,00 €
Orrialde osoa	306,00 €

Publizitatea kontratatzeko Pat Cowierekin hitz egin (695 78 07 20) edo publizitatea@karkara.com Prezio hauei BEZa gehituko zaie

LAGUNTZAILEAK**EUSKO JAURLARITZA**

Kultura Sailak diruz lagundutako hedabidea

Ez naiz ez politikari ez politikazale

Egia esan behar badut, ez naiz ez politikari ezta politikazale ere. Baina, urteak aurrera doazen eta heldu bihurtzen ari naizen heinean, gai batzuen aurrean interesea piztu zait. Egunero jende ugari eta desberdinekin egoten naiz harremanetan. Egun batean, horietako batekin hizketan ari nintzela, komentatu zidan, hauteskundeak gainean genituela eta legeak onartutako bozkatzeko eskubide hori aprobetxatu beharra zegoela. Nire bizitzan lehenengo aldiz -33 urte ditut-, buruarekin bozkatu dut. Gure herriarentzat onuragarri izango den alkate bat -pertsona- bozkatu dut. Iritsi zen egun hori, eta herritar gehienek alkate bera aukeratu zuten. Orain hasten da saltsa, herriak aukeratu du eta, alderdien paktu eta bozekin, alkatea ordeztu digute. Zertarako eskatzen digute herritarroi bozkatu eta aukeratzeko, gero hautatutako pertsona baztertu eta herriaren hitza errespetatu behar ez bada? ■ **Herritar bat.**

Orainen arrazoiak

Ekainaren 11ko plenoan Udalbatza osatu zen eta datozen lau urteetarako alkatea aukeratu behar genuen, hauteskundeek utzi duten indar banaketa kontuan hartuta.

Ordezkaritza lortu duten beste bi alderdiekin -EAJrekin eta Bildurekin- hainbat bileratan elkartu gara, eta Orain jaio zenetik aldarrikatu dugun mezu bera eman diegu bie: oriotarron ahotsa entzuna izatea bermatu nahi dugu. Hori lortzeko, elkarlanean arituko den Udal parte-hartzailea beharrezkoa da.

Bilera horietan, gure programan aipatzen ditugun elkarlana eta partaidetza aurrera eramateko, Orainek bi printzipio bultzatu ditu:

1. Udal-talde guztien arteko arduren banaketan parekotasuna.
2. Austeritatea. Bizi dugun garai honetan beharrezko ikusten dugu politikarien soldatak aztertzea.

Beñat Solaberrietak baldintza horiek gauzatzeko prestutasun handiagoa azaldu duela ondorioztatu genuen. Horregatik eman genizkion gure bi botoak alkate izateko.

Hori esanda, argi utzi nahi dugu ez gara Bilduren eskutik joango. Gaiak banaka aztertuko ditugu eta unean uneko erabakiak hartuko. Datorren legegaldian elkarlanean aritu nahi dugu proiektu guztietan, bai Bildurekin bai EAJrekin.

Guztiok ditugu ideia eta ekarpen garrantzitsuak, eta guztion artean lortuko

ditugu emaitzarik onenak. Hiru talde izango gara Udalean, eta hiruron erantzukizuna da Orioren ongizatea. Ekin diezaiogun lanari arduraz eta errespetuz. ■ **Orain.**

Orain bildu dira

Orioko herritarrek EAJri emandako bakesa maiatzaren 22an handia izan zen. Hain zuzen ere, 1.268 bozka eta, ondorioz, 6 zinegotzi lortu zituen, bigarren alderdia baino 230 bozka eta zinegotzi bat gehiago. Gainera, EAJ izan da 2007tik hona igoera handiena izan duen alderdia, ia %50.

Bilduk behin eta berriz esan du ez duela ulertuko EAJk beste alderdiekin paktua egitea haiek kentzeko, edota besteen bozka jasotzea ez dela kasualitatea izango eta, jakina, Bilduk beti errespetatuko duela alderdirik bozkatuena. Eta zer egin dute? Bada horixe bera, herritarren nahiari muzin egin eta alderdi bozkatuenari alkatetza kendu.

Orain plataforma *apolitikoak*, berriz, lehendabiziko erabakia hartu behar, eta legegaldian hartuko duen erabaki politikoena hartu du. Gehien bozkatua izan den alderdiari alkatetza kentzea. Esker-rrakapolitikoak diren!

Demokraziaren historian Orion inoiz gertatu ez dena ikusi genuen larunbatean udaletxeko bilkuran; hain zuzen ere, alderdi bozkatuenari alkatetza kentzea. Inork imajina al dezake zer gertatuko litzatekeen EAJri gertatu bezala beste bat i alkatetza kendu izan baliote?

Dena den, eskerrak eman nahi dizkizuegu larunbatean udaletxera EAJri bakesa ematera hurbildu zineten guztiei. Han egon zineten errespetu guztiz eta duintasun handiarekin. Ikasgai ederra eman zenioten errespetua galdu izan duten hainbat eta hainbati.

Bai Bildukoak eta bai Orainekoak ere erakutsi dute boterera iristea zutela helburu bakarra, eta berdin zitzaizela herritarrek esandakoa. Beti leporatu izan diote EAJri boterean egoteagatik edozer egiten duela, eta hara, kasualitatea! Lehendakaritza lortzeko PSOE eta PP alderdiek eginiokoren kopia. Helburu bera EAJ eta alkatea gobernutik kentzea.

Elkarren errespetua, herriaren borondatea kontuan eduki, herriari hitza eman... a ze hitz ederrak lehen diskurtsoan esateko! Baina hitz hutsak, Orioko herriaren borondatea baztertu baitute. Oriotarrak minduta daude, eta hala jakinarazi digute. Herriaren borondatearen aurka joatea ez da erarik aiproposena legegaldi bat hasteko.

Gobernuan ala oposizioan, lanerako prest dago gure taldea, estropada hasi besterik ez da egin eta, nahiz eta batzuk ziaboga estriborretik hartu eta hamaika kandela piztu, jakina da herria gure alde ari dela arraunean eta horren adibide dira 1.268 bozka.

Erantzukizunez jokatu dugu eta merezi duen errespetua erakutsiko dugu Orioko herriari. Eskerrik asko zuen babesagatik. ■ **Orioko EAJ.**

Saguentzako pozoina jartzen ari den horri

Salaketa bat egin nahi nuke:

Hondartza inguruko garbitzailea naiz eta, ekainaren 4an, garbiketa lanekin hasi ginenetik, bederatzi poltsa aurkitu ditugu saguentzako pozoinarekin inguru haieran.

Beraz, jakinarazi nahi diot Orioko herriari badugula pertsona maltzurren bat, haur-parkean, batere ajolarik gabe, horrelako poltsak jartzen dituen.

Nahiko amorratuta nago eta ez dakigu kontu horri buelta emateko zer egin, baina espero dut pertsona maltzur hori harrapatzea.

Horrela ari denari zera esan nahi diot: Hi, argi ibili! Eroriko haiz eta, nire asmoa, harrapatuz gero, zigorrik handiena jartzea da. ■ **Herritar bat.**

Mila esker guztioi

Bat, bi, hiru, lau, zazpi, ... hogeita bat, hogeita hiru, hogeita lau, hogeita bost, hogeita bost urte! Altxerriko hormetako hartzaren hasperen bat baino ez. Instante labur bat musikaren historian. Bizitza osoa Danbolin Musika Eskolarentzat. Bizitza osoa zuen ametsak musikaz jaxten.

Ospakizun berezia izan zen larunbatekoa. Herritar askok parte hartu zuten; haur, gazte zein heldu, denok izan baikin partaide. Gai izan ginen, lotsak alde batera utzi, taula gainera igo eta musika-ekin gozatzeko.

Beraz, esker oneko loreak banatzea besterik ez zaigu geratzen: lili eder bana musika eskolaren historia abiatu zutenei; larrosa sorta eder bat, urtetan bere laguntza eman digun Udalari; krabelin gorri bana musika eskolan 25 urte haue-tan ibilitako ikasle guztiei; bitxilore zuri bana beren gurasoei ere; nartziso hori bana musika eskolan lan egin duen irakasle orori.

Milaka esker, larunbateko amets hori egia bihurtzen lagundu diguzuen guztioi. ■ **Danbolin musika eskola.**

Beñat Solaberrieta da Orioko alkate berria, Bildu eta Orainen botoei esker

Ekainaren 10ean, prentsaurrekoan, eman zuen jakitera Orain plataformak Beñat Solaberrieta aukeratuko zuela ekainaren 11ko bilkuran datozen lau urteetan Orioko alkate izateko

Udaletxeko pleno aretoa jendez lepo zela hasi zen udalbatza berria eratzeako bilkura. Goizeko 8:30ean hastekoa bazen ere, 10 minutu inguru atzeratu zen ekitaldia.

Adin-mahaia eratzea izan zen lehen lana, zinegotzi gazteenak, Ekiñe Saizarrek - 23 urte, Bildu-, zinegotzi zaharrenak, Bixente Lasak - 57 urte, Bildu, mahai burua- eta Orioko Udaleko idazkari Jon Karrerakosatutakoa.

Atzetik udalbatza eratu zen, eta banan-banan zin egin zuten kargua zinegotziek: Jon Redondo, Noemi Ostolaza, Angel Del Hoyo, Lourdes Salsamendi, Eugenio Cotado, Elena Etxeberria - horiek 6ak EAJkoak-, Beñat Solaberrieta, Jon Agirresarobe, Ekiñe Saizar, Bixente Lasak, Amaia Dorronsoro - Bildukoak 5ak-, Miriam Uranga eta Jokin Izagirre - Orain plataformakoak biak-.

Bozketa

Behin zin eginda, bozketa zuzendu zuen Jon Karrera idazkariak. Horretarako,

botoa sekretua izan zen. Behin bozketa eginda, bezperan Orainek prentsaurrekoan esandakoa bete zen. EAJko alkategai Jon Redondok 6 boto bereganatu zituen eta Bilduren hautagai Beñat Solaberrietak 7. Horrenbestez, Solaberrietak jaso zuen alkateari dagokion aginte-makila, Jon Redondo ordura arteko alkatearen eskutik.

Makila jaso ondoren, hitz batzuk esan zizkien Beñat Solaberrietak bertaraturakoei.

Alkatearen hitzak

Jon Redondoren zoriontzeko hitzak entzun eta, makila hartuta, Solaberrietak testu bat irakurri zuen.

Bertan, lana *ardura osoz eta konpromisoz* hartzen duela esan zuen, eta *errespetua* izango duela herritarrekiko, beste zinegotziekiko eta udaleko langileekiko. Aurreko urteetan egindako lana ere *errespetatuko* duela esan zuen. *Herriak Udalaren kudeaketa saritu duela* gehitu

zuen segidan, *baina herritarrek lana egiteko moduetan aldaketaren beharra da-goela ere argi utzi dute*, gaineratu zuen. *Guztientzat eta guztiekin* egingo duela lan esan zuen, eta *herritarrek hitza, erabakia eta parte hartzea izango dute herria nolakoa izatea nahi duten erabakitzeke*. *Guztientzat Udaleko ateak zabalik* izango direla esan, eta bukatu zuen hitzaldi laburra Orioko alkate berriak.

Orainen prentsaurrekoa

Orain herri plataformak, udalbatza osatu bezperan, ekainaren 10ean eman zuen jakitera alkatea aukeratzeko nori emango zioten botoa. Beñat Solaberrietaren aldeko apustua egingo zutela esan eta gero, bi puntu garrantzitsu izan zirela bozka hori ematera bultzatu zutenak gaineratu zuten. Bata, *parekotasuna zela esan zuten, udal-talde guztien arteko arduraren banaketan parekotasuna bultzatu dugu*. Bestea, *austeritate printzipioa. Bizi dugun garai honetan beharrezko ikusten dugu politikarien soldatak aztertzea*. Haien ustez, *aurreko guztia betetzeko, Beñat Solaberrieta azaldu da presuntuago eta horregatik bozkatu zuten alkate izateko*.



Beñat Solaberrietak, alkate izendatu berritan, hitza hartu zuen eta jendeari zuzendu zitzaion. KARKARA

220 haur izango dira udalekuetan Txurrumuskirekin uztailean

Goizez ibiliko dira 3 eta 10 urte bitarteko neska-mutilak, taldetan banatuta, begiraleekin, eta beste urte batzuetan udaleku irekietan egin izan dituzten ekintza eta jolas bertsuetan arituko dira

Herriko txikienen udako oporrekin batera udaleku irekiak jarri ohi dituzte abian eta, aurtten, uztailearen 4an hasi eta 29ra bitartean ibiliko dira jolasean. 220 ume izango dira guztira eta begiraleak, berriz, 22. Txurrumuskikoak harrিতuta daude kopuruarekin: *Iaz 150 haur izan ziren eta 16 begirale; beraz, salto handia izan da eta horrek sorpresaz harrapatu gaitu.*

3 eta 10 urte bitarteko haurrak hiru taldetan banatuko dituzte eta bakoitzak bere eginkizunak izango ditu: txikien taldean, 70 haur eta 7 begirale izango dira; erdikoan, 95 haur eta 9 begirale; eta handienean 55 haur eta 5 begirale.

Goizez ibiliko dira umeak udalekuetan 09:00etatik 10:00etara bitartekoa izango da harrera ordua eta irten, berriz, 12:30etik 13:00etara artean irtengo dira.

Beste urte batzuetan izan duten harre-
ra ona ikusita, errepikatu egingo dituzte hainbat jarduerara: Korrika eguna, uraren eguna, margolari eguna, barraken eguna... eta, horiez gain, beste makina bat joko eta jolas egingo dituzte, eta baita irteera bat ere.

Arropa zaharra

Txurrumuskitik eskaera berezia ere egin nahi diete oriotarrei: udalekuetan moztu-
rrotu ahal izateko arropa zaharrak behar dituzte; beraz, etxean soberan izanez gero, udalekuetako egunetan Ikastolako pergolara ekartzea eskertuko dute.



Iaz baino 70 haur gehiagok eman du izena aurtten udaleku irekietarako. KARKARA

LABUR

Odol emaleak

Ekainaren 27an anbulatorioan

Odol emaleen elkarteak esan dute astelehenean, ekainaren 27an, odol ateratzea izango dela anbulatorioan 18:30etik 20:30era eta eskertuko luketela herritar-
rrak joatea. Gainera, adierazi dute udan jaitsi egiten dela odol emaleen kopurua eta odol premia, berriz, handitu, auto istri-
pauk ugaritzen direlako oporretan, eta herritar-
rak kanpoan izaten direlako.

Txu-txu tren

Asteartean jarriko dute martxan

Aurtengo udan ere txu-txu tren izango da Orioko Udalaren eta Arkupe merkatar-
ien elkartearen eskutik. Ekainaren 28an jarriko da zerbitzua martxan eta abuztu-
aren bukaeran amaituko da. Prezioa iazko bera izango da: 0,50 euro joan-etorria. Turismo bulegoan, kanpinean eta herriko zenbait dendatan egongo dira salgai txar-
telak. Bestalde, Arkupe merkatar-
iak iaz hasitako bideari jarraituz, aurtengo udan ere kontzertuak antolatze-
ko asmoa du. Horrez, gain, abuztuko azken aste-
buruan stock azoka ere egingo dute.

Euskara

Erabilerak gora egin du

Udaleko Euskara Zerbitzuak bi urtetik behin egiten du kalean euskararen erabi-
lera zenbatekoa den jakiteko neurketa. Ekainaren lehen astean egin zen, eta datu onak eman ditu, 2009koekin konpara-
tu. 4.000 lagunengatik jarduna neurtu dute eta datuak hiztunen adinaren arabera sailkatu. Haur (%93,52) eta gazteen (%90,02) hizketaldietan erabiltzen da euskara gehien. Helduek gutxiago erabil-
tzen dute euskara kalean: %61,19; eta, 65 urtetik gorakoek, helduek baino gehiago: %77,24.

Etxeluze gaztetxearen urteurrena ospatuko dute uztailaren 1ean eta 2an

Gaztetxean lehen urtean barrena egindako ekintzen argazkiak erakutsiko dituzte Etxeluzen eta bazkaria eta kontzertuak ere antolatu dituzte, beste gauza batzuen artean

Urtebete pasa da herriko gazteek Etxeluze eraikina okupatu eta han gaztetxea jarri zutenetik. Urteurren hori gogoratzeko, jai giroko ospakizunak egingo dituzte uztailaren 1ean eta 2an eta gaztetxetik herritarrak gonbidatu nahi dituzte urteurrenako ekitaldietara: *astebete falta zait urte bat betetzeko, beraz, denok gonbidaturik zaudete nire txokolatadara, esan dute gaztetxeko kideek hitz horiek gaztetxearen beraren ahotan jarrita.*

Lehen hilabeteak gaur egun gaztetxearen bueltan dabiltzanek bat egiteko baliatu zituzten eta, gero, urtebeteko ibilbideak elkarrekin gauza asko egiteko eta ikasteko aukera eman die: *poesia bidez idatzi, baratzaren bidez naturarekin bizi, musika asko ezagutu eta mota guztiak errespetatzen ikasi...*

Eraikina

Gazteei, bat eginda lanean aritu arren, Etxeluze eraikinak berak eman dizkie nahikoa arazo eta izan dituzte okupatutako etxe horretan jarraitzeko trabak. *Helduek bizi duzue gaur egungo etxebizitzaren egoera eta nik ere, ume naizen arren, izan ditut oztopotxoak nire etxean jarraitzeko. Hala ere, badirudi, oraingo honetan, haizea alde dudala eta hemen gera naitekeela gutxienez eskolan hasi arte.*

Gainera, lehen ez bezala, eraikina ordenantza barruan sartuta dago eta hori aurrera bidean pausu garrantzitsua dela uste dute.

Lehen ez bezala eraikina ordenantza barruan dago eta negoziazioak bide onetik doaz. Erostea aukera ere aztertzen ari dira.

Gaztetxetik jakinarazi dutenez, oztopoak oztopo, negoziazioak bide onetik doaz: *alde guztiak akordio batetara iristeko bidean gaude.* Bide horretan Udalean ordezkariak duten alderdi politikoei bilera baterako deia egin zieten eta aste honetan izan dute lehen bilera hori, gaztetxera bertaratu ziren Bilduko eta Oraineluordezkariekin.

Bileran, beste hainbaten artean, Etxeluze eraikina bera izan zuten gai nagusi.



Asteartetan entseatzeko dute batukadakoei, antolatu duten ikastaroan. KARKARA

Oraindik ezer zehaztu gabe badago ere, Etxeluze erosteko asmoa jarri zuten mahai gainean, eta horretarako, jabearekin hitz egin beharko dute eraikinaren egoeraz, berritzeko egin beharreko lanez, eta prezioaz, besteak beste. Aurrerantzean ere, ordezkari politikoei batzartuko dira gaztetxearen gaiak hitz egiteko.

Trikitixa eta batukada

Etxea bai, baina gazteek hainbat ekintzarako baliatzen dute etxe hori eta lehen urteurrenako festa ez ezik, badaude gaztetxean beste hainbat hitzordu aipatzea merezi dutenak: herriko trikitilariak astelehenean, 19:00etan izaten dute hitzordua eta batukada ikastaroa ere abian da gaztetxe asanbladak eta batukada taldeak elkarlanean antolatuta, astearte eta ostegunetan izaten da 20:00etan. Bestalde, frontenis txapelketa ere antolatu dute gaztetxekoek pilota elkartekoekin elkarlanean.

Gaztetxekoek Tuenti eta Facebook sare sozialak ere baliatzen dituzte eta gaztetxea.orio@gmail.com helbidera iradokizunak bidaliz gero, gustura jaso-

ko dituzte. Beren esanetan, *noizbait bihurri samar portatu banaiz, barkamena eskatzen dizuet eta, hanka-sartzeetatik ikasiz saiatuko naiz txintxo-txintxo portatzen.*

EGITARAUA

Uztailak 1, ostirala

19:00 Ate irekiak. Urte osoko argazkiekin egindako bideoa eta luntxa

23:00 Kontzertuak: Isuosasiia
Jon Tatxon

Uztailak 2, larunbata

10:30 Altxorraren bila

14:30 Bazkaria

Txartelak: Aterpe

Baraka

Errusta

Ondoren Twisterra

Murala margotzea

Bonbo-tronpeta poteoa

23:00 Kontzertua: Power flip

Flyshit

R

Aitor Matxainek eta Juanjo Polok irabazi dute berriz pala txapelketa

Unai Illarramendik eta Ibon Berasaluzek ez zuten finalean erakutsi txapelketan emandako maila, eta Matxain eta Polo aise nagusitu ziren, hasiera-hasieratik aurea hartuta

Ekainaren 11n, arratsalde, jokatu zituzten herriko gomazko pala txapelketako finalak eta, bigarren edizioan, iazko irabazleek, Aitor Matxainek eta Juanjo Polok, berriz ere jantzi zuten txapela. Txapelketako azken partidek bizitasuna ekarri zuten frontoira, ikusgarriak izan baitziren. Lehenengoan, lehia oso parekatua izan zen; bigarrenean, aldiz, jokalariei tentsioa nabaritu zitzaien.

Pala txapelketa herrikoia izan arren, finalean lehia kutsua nabarmena izan zen eta gogor jokatu zuten guztiek; lehen bi postuetarako aritu zirenek ez ezik, hirugarren eta laugarrenerako partida jokatu zutenak ere gogotik saiatu ziren.

Lehenengo partida Luis Erkiziak eta Joxe Mari Erkiziak irabazi zuten (30-27) Ritxi Uzkudun eta Garikoitz Erkiziaren aurka. Hasieran, aurretik izan zen Uzku-

dun-Erkizia bikotea, abantaila handiarekin; baina nerbio, neke edo tentsioaren eraginez, bukaeran irabazle izan zirenak pixkanaka gorantz joan ziren eta aurea hartzea lortu zuten. Atzean, lehia gogorra izan zen eta, aurrean, arriskatzan hasi zen Luis Erkizia. Hasierako gehienak ez zitzaizkien berdean sartu, baina beste bikotea, abantailaren eraginez lasaitu egin zela ikusita, ongi mugitzen jakin zuten. Luis Erkiziak azken tanto oso onak egin zituen, eta Joxe Mari atzera gogor jotzen asmatu zuen.

Finala

Aitor Matxainek eta Juanjo Polok erraz dominatu zuten finaleko partida. Unai Illarramendik eta Ibon Berasaluzek hasieran oso ondo eutsi zieten arren, ez zuten ohiko maila eman. Hala ere, antolatzailen esanetan, *aurkari gogorrak dira*. Polo indartsu agertu zen eta atzeko zuloan eduki zuen ia partida guztian Berasaluze. Matxainek, berriz, pilota aurrean jotzean, bi aurkarien artean espazioak ireki zituen, oriotarren kaltera. Partida 30-13 bukatu zen. Txapeldunek esan dute, hurrengo urtean, txapelketari saltsa pixka bat jartzeko, beste bikotekide banarekin aurkeztuko direla.

Frontenis txapelketa

Bestalde, Pilota elkarteak eta gaztetxeak antolatuta, frontenis txapelketa izango da uztailaren bigarren astetik aurrera. 15 urtetik gorakoentzat izango da, eta parte hartu nahi dutenek ekainaren 24a baino lehen eman behar dute izena kiroldegian edo Baraka, Errusta zein Aterpe tabernetan eta 10 euro ordaindu.



Matxain eta Polo irabazleek beste bikotekide banarekin arituko omen dira datorren urtean. KARKARA

LABUR

Judoa

Blancok urrea Munduko Kopan

Oiana Blanco judokak urrezko domina lortu zuen Munduko Kopako Espainiako proban, Madrilan, 48 kilotik beherako kategorian. Hiru borroka irabazi eta finalean Shugen Wu txinatarra izan zuen aurrez aurre, eta hari epaileek jarritako zigorrak baliatu zituen urrezko domina lortzeko. Lisboan, *World Cupean* bosgarren egin zuen eta asteburu honetan Sao Paulon, Brasilen, *Grand Prix*a jokatu du.

Arrauna

Lehen estropada bertan behera

Bordelen zen jokatzekoa San Miguel Ligako lehen estropada, baina lehen bi txandak jokatu eta Castro, San Juan, Orio eta Urdaibairen txanda iritsi zenean, Garona ibaiaren uraren indarragatik, ez jokatzeko erabakia hartu zuten. Aulki mugikorrean, haizea dezentekoa izan arren, fin aritu ziren etxeko arraunlariak Euskadiko txapelketan, Legution. Urrea eskuratu zuten skull bikoitzean infantil mutilek, lauko skullean infantil neskek, zortziko jubenilak eta skiffean beteranoak. Zilarrezko beste lau domina ere etorri ziren Oriora.

Futbola

Kadete mutilak ohorezko mailan

Denboraldia emaitza ezin hobearekin bukatu dute Orioko Futbol Taldeko kadete kategoriako mutilek; izan ere, ohorezko mailarako igoera lortu dute. Igoera faseko etxeko partida irabazi eta kanpokoa galdu egin zituzten. Orion jokatu zuten lehenengoa, Urola taldearen aurka, eta 2-0 irabazi zuten. Itzulerako partida -Zumarragako Argixao zelaian jokatu zuten- ordea, 3-2 galdu zuten. Hala ere, denboraldi polita egin eta Clemente eta Luis Clemente Fernandezek mutilak ohorezko mailan arituko dira hurrengo denboraldian.



KARKARA

“Orion jokatzeko dugu eta polita litzateke aukera horrekin jarraitzea”

Sara Iparragirre eta Elena Zaldúa

Saskibaloï jokalariek

12 urte ditu Sara -13, azaroan- eta 15 beteko ditu udan Elenak. Saskibaloïak lotzen ditu bi neska horiek, eta aurtengo udan, Euskadiko Saskibaloï Federazioak deituta, *campus* batean arituko dira: Sara infantiletan eta Elena kadeteetan

IKER GURRUTXAGA

Gipuzkoako selekzioan aritu dira bi jokalariek horiek dagoeneko. Probintzien arteko txapelketetan jokatzeko hainbat entrenamendu ordu eginak dituzte. Sarak badaki Euskadirekin entrenatzea zer

den, baina Elenarentzat berria izango da. *Campus* esaten zaien kontzentrazio banatara joango dira biak uda hasieran. Saskibaloïari buruz aritu gara haiekin. **Zerk bultzatu zaituzte kirol honetara?** Elena: Futboleko txarragoa izateak... kar, kar. Ez, bada, ez dakit arrazoia zein

izan zen zehatz-mehatz. Probatu nituen kirolerak saskibaloia gustatu zitzaidan gehien, eta lagunak ere bera aukeratu izanak erabakian lagundu zuen.

Sara: Nik zalantza asko izan nituen. Azken unera arte ez nuen erabakirik hartu. Baina, etxekoek eta lagunak konbentzitu eta, gustukoa nuenez, hemen sartu nintzen.

Selekzioaren lehen deia jaso zenutenean, zer sentitu zenuten?

S: Arraroa egin zitzaidan. Gipuzkoa guztitik oriotar bat aukeratu izanak harritu egiten zaitu.

E: Ez nuen sinetsi. Bakarrik zoaz hara. Besteak beren artean ezagutzen dira, baina gu bakarrik joan ginen.

S: Easo eta Iraurgi klubetako jendea joaten da gehien bat, eta gu ginen *arraroak*.

Entrenamenduen maila altua al da?

E: Entrenamenduak teknikoak izaten dira. Ez dira asko nekatzeak, norberaren teknika hobetzeak baizik.

S: Lagunak eginez ikasi eta dibertitzea da hango entrenamenduen helburua.

Taldean azkar integratu al zineten?

E: Azpeitiarren lagun egin nintzen segituan, Easokoekin ere ongi moldatu nintzen arren.

S: Hori da, ni ere azpeitiarrekin moldatu naiz hobeto. Gero badaude beren burua munduko jokalaririk onenaren pare jarritzen dutenak, eta horiekin ez naiz ongi konpondu. Handiuste gehiegi dute, beste aldagela batean aldatzerainokoa.

Campuserako Euskadiren deiak zer sortu dizue?

E: Nik, hasieran, uste nuen Gipuzkoarako egin zigitela deia, baina gero jakin nuen Euskadikoek deitu zutela. Gogoz hartuko dut, baina ez naiz itsutuko. Aurrera egiten badut, ongi; eta, bestela ere, pozik.

S: Elena, behintzat, Zarauzko lagunekin doa; ni bakarrik. Dena den, pozik joango naiz bertako kontzentrazioa.

Zein hizkuntza erabiltzen dute bertan?

E: Ni orain arte Gipuzkoakoan izan naiz, eta gaztelera erabiltzen da.

S: Euskadikoan ere bai. Ni, azpeitiarrekin batera, galduta ibiltzen nintzen horren ondorioz.

E: Ni hizkuntzarekin baino, arbelko esplikazioekin galtzen naiz... kar, kar.

Urte luzez jokatzeko asmoz, ezta?

E: Zalantzarik gabe. Askok gustatzen zaidan kirola da eta bertan jarraitzeko intentzio guztia dut. Gainera, herrian bertan jokatzeko dugunez, aukera honekin jarraitzea polita litzateke.

S: Hori da, ahal dela Orion jokatzeko jarraitzea oso ona da guretzat. Baina aukera hori bukatuz gero, ez nintzateke besoak gurutzatuta geratuko. Beste nonbaiten jarraituko nuke jokatzeko.



KARKARA

“Trikitixak beti izan du dagokion eremua, baina ez da geldi egoten”

Imuntzo eta Beloki

Trikitilariak

Disko berria egin dute aurten, eta Aristerrazun aurkeztu ekaineko lehenengo erromerian. Trikitilari ospetsuekin diskoaz eta Aristerrazuko erromeriaz hitz egiteko aukera bikaina izan dugu.

PAT COWIE

1991n egin zuten aurreneko diskoa eta elkarrekin jorratutako 20 urteko bidean beste bost kaleratu zituzten. Horiekin guztiekin etorri izan dira Aristerrazura. Oraingoan, *Gezurra ez da egia* disko egin berria ere ekarri dute.

Zer du berrik *Gezurra ez da egia* diskoak?

Beloki: Polka sartu dugu. Lehen rantxerak, *tex-mex*, *cajun*, kumbia... estilo difereenteak landu genituen, baina polka

erritmoa ez dugu askotan jo diskoetan. Polka horietako bat euskal dantzariak oso ondo ezagutzen dute, baina bertsi berri bat egin dugu, letra zaharrak aurkitu ditugulako, eta inoiz entzun ez ditugun letrekin abestu dugu. Bestea da orain dela 100 urte gure aitona Bilbotik ekarritako erdaraz eta euskaraz kantatzen ziren bertsoekin egina. Beraz, kantuak asmatzean eta moldatzean, magia sortzen da eta sormen lanarekin zeure ukitua ematen diozu. Beraz, era naturalean konturatu gara hiruzpalau polka ditugula! Eta Aristerrazura ekarri.

Imuntzo: Disko berria egin eta ondorengo emanaldi guztiak dira aurkezpenak, zuzenean emateko aukerak. Gainera, Aristerrazun tradizioari eutsi zaio, igandero egoten baita erromeria, betiko estilora.

B: Toki bakarra da. Beste toki askotan jutzen dugu festak direlako, kontzertua delako, baina horrela ez. Honek tradizio handia du.

“Aristerrazun tradizioari eutsi zaio, igandero egoten baita erromeria, betiko estilora”

“Kantuak asmatzean eta moldatzean, magia sortzen da eta sormen lanarekin zeure ukitua ematen diozu”

Trikitilariak aparte utzita, zeri esker bizi da trikitixa gaur egun?

B: Zaletasunari esker, ikastera joaten direnei, emanaldiei esker, denak dira inportanteak. Gazteak ikastera joaten direlako eta musika gustatzen zaielako; triki-poteoak, kalejirak, kontzertuak... antolatzen dira.

I: Eta bikoteak edo taldeak jarraitzen dute pieza berriak sortzen eta grabatzen, trikitixa bizirauteko, merkatuan egon behar duzu, egunean egon.

Etorkizun sendoa al du?

I: Eskolak ematen ditut, eta garbi ikusten dut jendea gogoz dagoela. Jarraitzen dute eta gustatzen zaion publikoak bere izaera badu, izateko modu bat, festa egiteko modu bat, berea dena.

B: Festak ez dira bukatuko, eta musika egon beharko da. Trikitixa barruan, zenbait moda berri sortzen ari dira, taldeak, esaterako, edo ska moduan. Trikitixak beti izan du dagokion eremua, baina ez da geldi egoten.

Ogibidetzat duzue?

I: Eskolako umeei ematen dizkiet eskolak, ezin baitugu emanaldietatik bakarrik bizi. Ahal dudana bezala uztartzen ditut lan hori eta udako kontzertuak eta festak.

B: Nik Elkarren egiten dut lan, baina gure musikari dagokionez, klabea da egiten dugun bakarlana: norik berea egiten du biok elkartu baino lehen. Gaur egungo teknologiari esker errazagoa da, eraginkorragoa.

Baita zaleek pistak entzuteko ere. Bai, e-boza.com-en gure disko guztieta-ko piezak entzuteko aukera dago. Eta CDa salgai egongo da dendetan eta Aristerrazun bertan.

LABUR

Udala

Udalbatzaren eraketa

EAJko hautagaia, Igor Iturain, aukeratu zuten alkate beste lau urterako, ekainaren 10ean egindako osoko bilkuran. EAJ alderdiak sei zinegotzi izango ditu Udaleratu berrian -Igor Iturain, Maria Jesus Arruabarrena, Asier Ibarburen, Idoia Iribar, Arkaitz Iruretagoiena eta Ander Arrillaga- eta Bilduk bost -Aritz Arruti, Aitzpea Elgarresta, Asier Egaña, Amaia Guruzeta eta Mikel Zulaika-. Iturainek jakinarazi zuen orain arteko lan egiteko bi-deei eutsiko diela aurrerantzean ere.

Lanpostua

Udalak peoi lanak egiteko lanpostu bat eskaini zuen aiarrentzat. Guztira 10 lagunek eman zuten izena eta, baldintzak bete dituzten zortzi hautagaien artean zozketa egin ondoren, hurrenez hurren, honela gelditu da zerrenda: Chafaa Akalai, Jesus M. Atxega, Pedro Ansorena, Nuria Azkue, Iñigo Benito, Saioa Lertxundi, Aitor Esnal eta Enrique Martinez. Bi hilabeteko kontratuak egingo zaie, eta brigadan egingo dute lan.

Kirola

Aimar Irigoienaren apustua

Aimar Irigoien harrijasotzailea, Zelairen marka gaudituz, 124 aldiz altxatzekoa zen 125kiloko zilindro zaharra, 5 minutuko hiru txandatan. 101 altxaldiren ostean, ordea, indarrak gabe geratu eta ez zuen marka hobetzerik izan. Aiako Idi Probak elkarteak jokaturako 24.000 euro jaso zituen apustua irabazteagatik.

Zarautz-Aia krosa

Ekainaren 12an jokatu zen Zarautz-Aia krosa. Guztira 106 korrikalarik hartu zuten parte, horietatik 15 emakumezkoak. Gizonezkoetan, Elamrani Hicha izan zen lehena, 38 minutu eta 38 segundoko denborarekin. Emakumezkoetan, berriz, Rosi Talavera -sailkapen orokorrean 35.- 50 minutu eta 3 segundotan. Lehenengo aiarra Mikel Iruretagoiena izan zen, 48 m. eta 5 s. an ibilbidea bukatuta; Aiako lehen neska, Ainhoa Lertxundik, ordubeste behar izan zuen.

Sokatira txapelketa

Ekainaren 26an, larunbatarekin, Euskadiko Lur Gaineko Sokatira Txapelketa jokatu da kanposantu ondoko zelaian 11:30ean. 600 kiloko modalitate mistoan honako taldeek hartuko dute parte: Getxo, Gaztedi, Gaztedi Mistoa, Gohierri A, Gohierri B eta Mutriku.



Eskultura eta dirua jaso zituzten Hitzez elkarteok Muskizko Udalaren sariarekin. MUSKIZKO UDALA

Hitzez elkarteak Andrakintza saria jaso du Muskizko Udalean

Emakumeen eta gizonen artean berdintasuna bultzatzen duten elkarteak edo norbanakoak saritzen dituzte, eta landa inguruan Hitzez taldeak egiten duen lana goraiatu nahi izan dute aurten

Landa-ingurunekeo Euskadiko Emakumeen Elkarteak -Hitzez- jaso du Muskizko Udaleko berdintasun sailak ematen duen Andrakintza saria. Gizonen eta emakumeen aukera berdintasuna defendatu edo sustatzeko ekintzak egin dituzten pertsona, talde, elkarte edo erakundeei beren lana jendaurrean aitortzea da sariaren helburua, batik bat, Euskal Herrian edo Euskal Herritik garatuak eta originaltasun, ahalegin edo eraginagatik aipagarriak direnak.

Osasuna zaindu

Aiako emakumeen elkarteak 2007. urtean sortu zuten Urola Kostako landa-ingurunekeo bost emakumek, horietako batzuk sindikatueta eta elkarteetan esperientzia luzea zutenak; gaur egun, 50 emakume biltzen ditu. Taldearen helburua landa-ingurueta emakumeen osasuna zaintzea da eta formazio, parte hartze, eztabaida eta gogoetarako guneak antolatzea horretarako.

Epaimahaia, Gobernu Kanpoko Erakundeek, sektoreko elkarteek eta udal teknikariek osatu zuten. Hitzezekin batera, aurten, Ekuadorren berdintasuna lortzeko Zirkintza mugimendua eta Mugarik Gabe erakundea ziren hautagaiak. Hitzez aukeratzearen arrazoia hau izan da: *oso eremu zehatzean, landa-ingurunean, emakumeek antolatu eta zuzendutako elkarteak izatea.*

Baserrien sakabanaketak berez sortzen duen bakartzeaz gain, badirela kultura eta tradiziozko beste faktore batzuk baserriko emakumeari herriko edo hirigunekoari baino gehiago eskatzea eragiten dutenak nabarmendu zuen taldeko ordezkariak sari banaletan. *Baserrira ezkontzea, maiorazkoarekin ezkontzea ez ezik, familia osoarekin ezkontzea dakar, eta osasunean eragina duen gehiegizko esfortzua egitea. Gainera, askotan baztertuta sentitzea ere badakar, kanpokotzat hartzen gaituztelako eta gure lana ez delako aintzat hartzen.*

Joan Bataiatzaile donearen eguna

Joan donea zaindari duten herri asko izango dira Euskal Herrian, baina Gipuzkoan herri-rik gehienetan izango dute eliza edo ermitaren bat santu horri eskainitakoa.

Aiako Iturriotzen ere badago, Joan donearen gorantz an eraikitako ermita, polita gainera. Historiak dioenez, gizaldiak eramango ditu ermita horrek, zaindariaren egunean, meza eta beste ekin-tzak egiteko aterpea eta babesa ematen inguratzen diren guztiei.

Iturriozko ermitan gure aurrekoak zer eliz-bilera egiten zituzten aztarnarik ez daukagu, baina, azkeneko berrogei bat urte hauetan, egun hortan zer elizki-zun egiten diren azaltzen saiatu nadin.

Joan donearen egun hortako meza

nagusira biltzen ziren umetxoak be-deinkatzen hasi omen ziren eta, horren eraginez, izugarriko arrakasta lortzera iritsi da. Orain, herriko eta erbesteko gu-rasoak beren umetxoekin meza hortan parte hartzen dute eta, umeekin batera, lore-sortak eta baserriko fruituak be-deinkatzen dituzte. Eliza eta ataria jende-z gainezka izaten dira: Joan doneak jarraitzaile asko dauzkala aitortu behar.

Biharamunean, baserriero, ate eta leiho ertzetan, lizar-gurutzeak jartzen ziren 'demoniño' eta ekaitz gaiztoetatik babesteko

Ospakizun berezienen berri eman dut, baina bezpera ilunabarreko san Joan sua aitatu gabe uzterik ez dago.

Gaur ere suak egiten dira, baina gure lurralde hau baserri-z josia zegoen garai hartan, eta san Joan bezperako sua egiteko ohitura hura gauza sakratua zen.

Baserri bakoitzean 10-12 laguneko sendiak zeuden orduan, eta san Joan sua egiteko ordua heltzen zenean, gauza ziran guztiak inguratzen ziren sua egiteko tokira, batzuek suaren jiran saltoka eta besteak kantari, eta gazteak auzoko baserrikoiei oihuka: hura zen korua hura! Eta biharamun goizean, baserriero, ate eta leiho ertzetan, lizar-gurutzeak jartzen ziren, *demoniño* eta ekaitz gaiztoetatik babesteko zaindariaren laguntza izan zezaten.



Txokoak eta jendea Mus txapelketako irabazleak

Negu partean, mus txapelketa jokatzeko ostiralero herriko tabernetan. Saio bakoitza irabazi dutenen artean finala jokatu zuten ekainaren 10ean Kanua jatetxean. Guztira 13 bikote aritu ziren eta txapelkunak etxeok izan ziren. Inazio eta Bixente Zuloaga anaiak, Felix Arrillaga eta Jose M. Arrillagari azken partida irabazita.



05. A8 eraiki Altuna bota

S an Martin auzoko Altuna baserri oriotar askorentzat ezezaguna da. Izan ere, autobidea eraikitzearekin batera desagertu zen.

Altuna baserriari buruzko lehen berria, 1830. urteko hipoteka-liburu batean agertzen den aipamen txiki bat baino ez da. Ondoren, Hirugarren Guda Karlistan, Alfonso XII.aren aldeko gudarosteak Orion eragin zituen kalteak jasotzen dituen zerrenda batean ageri da Al-

tuna baserriaren izena. Beste oriotar askok bezala gerraren ondorioak jasan baitzituzten Altunako bizilagunek ere.

Madrilgo familia batena zen baserria eta hango bizilagunak maizter egon ziren. Baserrian bizi izan ziren azken senar-emazteek 17 seme-alaba izan zituzten eta aitona-amona eta osaba ezkongabe batekin batera bizi izan ziren; 23 lagun teiltatupe berean.

Lana gogor egin behar zen Altunan familia aurrera aterako bazen, eta baserriko lana etxekoei jaten ematera bideratua zegoen. Artoa, patata... landatzen zuten eta, etxean esnerik falta ez zedin, behiak ere hazten zituzten. Hainbeste senide izanik, ordea, kanpoan ere egin zuten lan, itsasoan zein lantegian.

XIX. mendean, gerraren ondorioei aurre egin behar izan zieten Altunakoek, baina XX. mendean bestelako ondorioak bizi izan zituzten baserrian. Gizartearen aldaketek eta aurrerapenek atzera eramane zuten Altunako bizilagunen eguneroko jarduna; atzera baino, behera. Izan ere, A-8 autobidea eraikitzeko, Altuna baserria behera bota zuten orain dela ia berrogei urte.

Baserriaren itxura argazki zahar batean baino ezin daiteke ikusi. Oinplano laukizuzena, bi isuriko teiltatua, aterpea, bi altuera eta ganbara zituen. Horma kareztatuen azpian seguru asko harlangaitza izango zen.

[ARGAZKIA ETA INFORMAZIOA: ZEHAZTEN]

XABIER URRETABIZKAIA

- Instalazio elektrikoak
- TDT antenak
- Atebain automatikoak

60 urte zerbitzuan eta

☎ 943 83 17 74

Aerantale, 31 20810 OLLIO

URAITZ

burdindegia

Enpresa

📞 943 83 18 37

URANGA

burdindegia

Opari, menaje eta erremintak

📧 Tel. uranga@euskalnet.net

📞 Telefon: 943 8312 36 Esko Gudari, 5

tel/fax: 943 89 00 69

1800000004 - 21101200112

URBIDE

ITURGINTZA, BEROGINTZA
GASA, BAINU, ERAKUSKETA

📞 943 89 00 69

“Shanghain egunero ikusten dira bitxikeriak”

Igor Castro Etxeberria

Ingeniaria

Duela hiru hilabete iritsi zen Txinara Igor Castro ingeniaria. Dibal enpresarentzako egiten du lan, eta hango bizipenen berri ematen du **orioshanghaiconnection.wordpress.com** blogean. Guk gehiago jakin nahi izan dugu eta, bizipenez gain, Txinari buruz galdetu diogu Igorri.

TESTUA: KARKARA
ARGAZKIAK: IGOR CASTRO

Oriotar peto-petoa da Igor Castro. Shanghain dagoenetik blog batean kontatu dizkigu hango bizipenak eta argi eta garbi erakutsi du hor odol horikoa dela. Denbora dezente badarama bertan, eta han bizitakoa eta Txinaz dakiena jaso

nahi izan dugu elkarrizketan. Sareko komunikazioaz baliatu gara lotura berezia egiteko.

Nolatan joan zinen Shanghaira? Noiztik eta noiz arte zaude?

Aspaldian nintzen hona etortzekoa. Lagun bat daukat hemen lanean, eta hura bisitatzeko asmoa nuen; baina, azkenean, lan kontuengatik etorri naiz, bizitzak

buelta asko ematen ditu eta gutxien espero duguna egokitzen zaigu askotan.

Hiru hilabete eta erdi daramatzat hemen eta, egia esateko, hiru aste bezain azkar igaro zaizkit, dena oso azkar doa eta intentsitate handiarekin bizitzen ditut egunak. Oraingo, urtebeteko kontratua daukat enpresarekin eta 2 urte egoteko asmoarekin etorri naiz; baina



nork daki, hemengo beteranoek esaten duten moduan, badakizu noiz etorriko zaren, baina ez da erraza izaten bueltako eguna noiz izango den asmatzea.

Zertan arizara hor?

Ingeniaria naiz *Dibal* enpresan –pizatzeko makinak egiten ditugu– eta denetarik egiten dut, behar ditugun materialerosteko ardura dut, enpresako produktzioa ere nik eramaten dut, kalitatea oso garrantzitsua da guretzat eta asko zaintzen dut. Logistikako ardura ere nire gain hartzen dut, bezeroei gure produktua ahalik eta erarik eraginkorrenean bidaltzeko –hegazkinez, itsasontziz...– eta Giza Baliabideen saileko arduradun ere banaiz, bertako jendea elkarrizketatu, soldatak, oporrak... Eguneroko lanean psikologia asko erabili behar da jendea ulertu, motibatu eta gustura edukitzeko. Ez daukat aspertzeko astirik eta asko ikasten ari naiz. Hona etortzeko arrazoietakoa bat hori izan zen, Euskal Herrian ezin izango nuke hori guztia 15 urtetan ere ikasi.

Baina dena ez da lana eta, hori bukatuta, bola-tokira edo gimnasia joaten naiz hemengo lagunekin eta asteburuak Txinako bazterrak ezagutzen igarotzen ditut –Beijing, Xi’an...–, lanetik deskonektatu eta turismo pixka bat egiteko.

Hemengo gutziak probatzen zalea naiz, bertako kulturaren barneratu eta ikuskizunekin gozatu. Askotan txinatar jatetxeetara joaten naiz –ez dute zer ikusirik Euskal Herriko txinatar jatetxeekin– bazkaltzera eta gauzarik arraroenak probatzen ditut.

Zer aurkitu duzu Shanghain? Zer eman dizu?

Shanghaik gehien eman didana lagun berriak ezagutzeko aukera izan da. Oso erraza da hemen lagun eta kontaktu profesionalak egitea, bereziki eguneroko laneko arazoetan laguntzeko. Oso azkar hazten ari den hiria da, eta txundigarria iruditzen zait zenbat etxeorraz dauden eta zer nolako erraztasuna duten etxe berriak eraikitzeko.

Oraingoan, Shanghaik eman didana esperientzia aparta bizitzeko aukera da, bai lan arloan eta bai pertsonalean ere. Momenturo gauza ugari egiteko aukera dago hemen, eta pasatzen dudana egun bakoitza ezberdina da, ez dut sekula jakiten eguna nola bukatuko den, beti topatzen dut harrizko nauen zerbaite.

Bestalde, banekien hemen jende asko bizi zela, baina ikusi arte ez nuen sinesten. Harrigarria da, baita ere, garraio publikoa zeinen ondo dabilen. Milioika pertsona eguneroko-eguneroko alde batetik bestera mugitu beharra dago eta oso ondo kudeatuta dago.

Shanghaitik apur bat mugitzen baza-

“Bi urte egoteko asmoarekin etorri naiz, baina, nork daki, hemengo beteranoek esaten duten moduan, badakizu noiz etorriko zaren, baina ez da erraza izaten bueltako eguna noiz izango den asmatzea.”

“Dena ez da lana eta, hori bukatuta, bola-tokira edo gimnasia joaten naiz bertako lagunekin eta asteburuak Txinako bazterrak ezagutzen igarotzen ditut, lanetik deskonektatu eta turismo pixka bat egiteko.”

“Harrigarria da baita garraio publikoa zeinen ondo dabilen ere. Milioika pertsona eguneroko-eguneroko alde batetik bestera mugitu beharra dago eta oso ondo kudeatuta dago kontu hori.”

“Gauza asko bilatzen ditut faltan: familia, lagunak... eta nire neskalaguna, bereziki. Baita Euskal Herriko hondartza eta mendiak ere; kresal usaina faltan sumatzen dut eta Orioko erretegietakoa arrainaren lurrin gozoa ere bai.”

“Mendebaldeko merkaturaren bereganatuta dute dagoeneko. Askotan entzun dugu: argi txinatarrekin, hemen daude-eta... Baina aspaldi jan ziguten ogia.”

“Komunismoak jarraitzaile ugari ditu Txinan, eta oso harro daude Gobernuak daraman politikaz.”

ra, ordea, kontraste handiak topatzen dituzu eta atzerritarra izanik, goitik behera begiratzen dizute harri dura aurpegiakin, eta haiekin argazkiak ateratzeko ere eskatzen dizute.

Gauza asko topatu ditut Shanghain, eta eguneroko topatzen ditut niri atentzioa ematen didaten bitxikeriak –kontatzen hasiko banintz ez nukeen berehalakoan bukatuko–.

Zure bizipenak blog baten bidez plazaratu dituzu. Nolatan bururatu zitzaizun? Zer jasotzen du blogak?

Blogaren ideia garbi izan nuen hasiera-hasieratik. Zorionez, Euskal Herrian nahiz atzerrian lagun asko ditut, eta ezinezkoa ikusten nuen eguneroko lan erritmoarekin e-mail eta mezu guztiak erantzutea; horrenbestez, blogean behin idatzita denek izaten dute nire berri eta haiekin komunikatzea errazagoa egiten zait. Hala eta guztiz ere, saiatzen naiz mezuren bat edo beste erantzuten. Gainera, argazkiak ere jartzen ditut eta lagunek asko eskertzen didate, hemengo errealitatea errazago imajinatzen baitute horrela.

Lagunekin eta familiarekin komunikatzeko ideiarekin hasi banintzen ere, adiskide eta jarraitzaile berriak egin ditut nire bizipenekin, identifikatuak edo interesatuak azaldu direlako. Oso pozik nago eta asko eskertzen diet eguneroko jarraitzen nauten guztiei. Nolabait ere etxetik gertuago sentitzen naiz, eta ez dut Euskal Herriarekin konexioa galtzen.

Blogean eguneroko bizipenak azaltzen saiatzen naiz, lehenengo pertsonan kontatzen ditut Txinako nire esperientziak, eguneroko baten moduan askotan, eta etorkizunerako oroitzapen polita izango delakoan, nire buruarentzat opari bezala ere hartzen dut.

Nire berri jakin nahi duenentzat edota kuriositatea duenarentzat, *orioshanghaiconnection.wordpress.com* helbidean topatuko nauzue. Ongi etorriak izango zarete.

Hemengo zeren falta sumatzen duzu?

Gauza askoren falta sumatzen dut: familia, lagunak... eta nire neskalaguna, bereziki. Baita Euskal Herriko hondartzak eta mendiak ere; kresal usainaren falta ere igartzen dut eta Orioko erretegietakoa arrainaren lurrin gozoa ere bai. Hemengo janaria gozoa den arren, Euskal Herriko sukaldeetako jakiak dastatzea bezalakorik ez dago. Shanghai bezalako hiri batean, Orion ez bezala, lasaitasuna topatzea ez da erraza izaten.

Oraingoa udator eta herrietako festak galduko ditut, herrietako giro alaiak, kontzertuak, euskal musika, sagardoa...

Hemen eskubaloian aritzen banaiz



ere, Usurbilgo Senior nesken taldearekin ere gogoratzen naiz. Beste erronka bati ekin diote liga berrian eta onena opa diet. Frontoirik ez dut topatu eta gustura jokatuko nituzke pala partida batzuk.

Azken egunetan izandako momentuekin ere asko gogoratzen naiz. Orduan konturatu nintzen, jaso nuen babesaren ondoren, Eli nire neskalagunak eta bere familiak eskainitakoarekin bereziki. Baita nire guraso, osaba eta lagunengandik ere. Egunerok oroitzen naiz haiekin eta eskerririk beroenak bidali nahi dizkiet.

Shangaiko Euskal Etxean sartzea, Euskal Herriko txoko batean sartzea bezalakoa da. Shanghain dagoena, baina Txinatik urrun dagoen toki bat, aldi berean. Askotan eguneroko intentsitateki ateratzeko txoko aproposa da, zure herriko jendearekin egoteko premia ere izaten duzulako.

Hemen hainbat afari egiten ditugu, mus txapelketak... horrela, euskal giroan eta etxean bezala aurkitzen naiz. Euskal Herriko festarik garrantzitsuenak ere modu originalean ospatzen ditugu: Donostiako danborrada, Korrika eguna eta Kontxako estropadak ere bai, jakina! Aurten Oriotik ekarritako herriko bandera horia bertan egongo da. Kar, kar! **Txinatarrek gurean gero eta presentzia nabariagoa dute. Zergatik dela uste duzu? Hemendik horra lanera eta txinatarrek hona negozioak jartzera.**

Kontuan hartu behar da Txinan jende mordo bat bizi dela, eta haien ehuneko txiki bat atzerrira ateratzeak guri asko dela iruditzen zaigula. Horietako asko unibertitate bukatu eta atzerrian lanean aritzeko gogoz daude eta, askotan, master bat atzerrian ikasi eta, aldi berean, negozioak jartzen dituzte. Nirekin masterrean ikasle izandako txinatar batzuk ezagutzen ditut eta horrexegatik diot. Beste batzuk, ordea, negozioa egiteko aukera ona topatzen ari dira orain; egia da, Txina oso azkar hazten ari da, eta hemen fabrikatzea ez da hain merkea dagoeneko. Beste alde batetik, Euskal Herriko enpresa askok kontaktu interesgarri ugari lortu dituzte urte batzuk lehenago eta bertan urte batzuetarako lana badaukagu oraindik. Hala ere, hasiak dira beste toki batzuk begiratzen.

Txinaren politikak espansionistak direla uste al duzu? Hau da, mendebaldeko merkatua jan nahian dabilzala iruditzen al zaizu?

Mendebaldeko merkatua bereganatu dute dagoeneko. Askotan entzun dugu, *argi ibili txinatarrekin, hemen daude eta...* Baina aspaldi jan ziguten ogia. Garai batean Amerikako Estatu Batuek (AEB) eraman zuten estrategia bera ja-

rraitzen ari dira. Mundua erosi dute, dirua eta urteetan gure enpresek emandako teknologia eta esperientzia lortu dituztelako. Ziztu bizian doaz eta ez dute gelditzeko asmorik. Hala ere, arriskuak ere badituzte. Ikusi beharra dago, denborak argituko digu zer gertatuko den etorkizunean, baina mendebaldeko biztanle askok beren eta ondorengo etorkizuna Txinan ikusten du.

Egia al da txinatarrek Afrikan egiten dutela guk haiekin egiten duguna? Hau da, eskulan merkeagoaren bila hara joan direla?

Bai, egia da. Urte batzuk lehenago alemaniarrek lortu ez zutena lortzen ari dira Afrikan. Hala eta guztiz ere, ez da Afrikaraino joan behar. Europan, Portugalen, Indian edo AEBetako toki askotan eskulan merkeagoa topatzen dutelako azpiegitura hobearrekin.

Bizi-kalitatea zer moduzkoa da han?

Egia al da pobrezia ezkututzen saiatzen dela Txinako gobernuak?

Shanghain oso –baina oso– aberatsak direnak topa ditzakezu eta pobrezia ere bai. Pobrezia egon badago, baina ekonomikoki asko hazten ari dira eta bistakoa da. Bizi-kalitatea, bizi zaren tokiaren arabera da. Bizi-kalitatea ona topatu dut ni bizi naizen inguruetan, baina pobrezia handia ere bai, pixka bat ateraz gero. Baliteke gobernuak pobrezia ezkututzen aritzea, munduaren aurrean indartsu azaltzeko, baina ez dakit. Egia da informazio asko ezkututzen dutela haien interesak babesteko.

Interneteko sarean dauden betoek jarraitzen al dute? Hango erregimen komunistak zentsura-indar handia al du Txinan?

Interneteko betoak jarraitzen du, bai; bereziki, urte batzuetatik hona. *You Tube*, *Facebook* eta *Google*-rekin tira-bira ugari izaten ari dira, baina, nahi izanez gero, nabiga dezakezu orrialde horietan programa berezi bat erabilia.

Txinako herritarrak gustura al daude bertako politikarekin? Herrialde arabiarretan bezala iraultza bat egiteko gai ikusten al dituzu?

Komunismoak jarraitzaile ugari ditu Txinan, eta oso harro daude daramaten politikarekin. Askok hitz egin dut ezagutzen ditudan txinatarrekin eta guztiek bat egiten dute horretan. Denak gustura daude gobernuarekin eta aurrerakuntza handiak ikusten dituzte. Lan eskaintza ugari sortu du Txinako gobernuak, dirua ekarri du, ez dute krisi hitza ezagutzen eta begi onez ikusten dituzte beren gobernuak hartutako erabakiak. Ez dut hemen Txinako gobernuaren kontrako irizirik bat bera ere entzun eta babes osoa eskaintzen diote.

Zer ematen du herrigintzak?

Gogoan dut KARKARAN arraunlariari egindako el-karrizketak lau ordu pasatxo iraun zuenekoak. Ordu-rako buruz ikasitako kasetean gaisetarik grabatu behar izan nuen el-karrizketaren azken puska. Bertso zaharrak ziren, noski, berriro berreskuratzen ez ditudanak. Pilota txapelketa larunbat eguerditan jokatzeko zen garai hartan. Soka-saltoan kontatu gabe gelditutako jauziak eta *Xapateroren* eskertzak. Korrikako kartelak jartzen Guardia Zibilak harrapatu zituenekoak, estropadetan megafoniatik Camargori Hondarribia B deitu nienekoak, Herribil ekitaldian autopistako matxoiarena egin genuenekoak. Hizketa-gaia delikatu zelako Donostiara kafea hartzera joan eta Kolon Txikin baino oriotar gehiago topatu genitueneko hura. Aktan idatzia gera dadila ez girela ezkutuan ari ginen bakarrak. Herritarren omenaldi, hileta eta ezkontzetarako idatzitako bertsoak eta egindako poesia kaxkarra.

Bapatean, lagunei ihes egindako eta ahaztutako bertsoak. Gaztetxeko gogoe-ta amaiezinak eta di-da irentsitako patata tortilak. Arraunlariari animoak emateko bideoak emandako anekdota guztiak, lagun berriak, edandako txanpainak eta ezkutuan aritzeagatik esandako gezur-rak. Bertsolariaren final handian, Barakaldon, berrogeita hamar oriotar inguru gorritz jantzita lanean aritu zirenekoak. Hemeretzi urte mukizurekin lagunaren omenaldian bizimodua zer den ezagutu genuenekoak. *Atorrarekin* txirigotak

Hamaika herritar norbere buruari, etxekoei eta koadrilakoei orduak lapurtuta aritzen dira. Baina herrigintzak eman ere egiten du. Herrigintzak merezi du.

eta lotsak konpartitzea, gaztetxeko bideoan Unairen arnas-estuak gertutik sentitzea. Denak balio izan du.

Hori guztia zertara datorren galdetu du bakarren batek. Pasa den larunbatean, plenotik atera berritan, mila saltsatan sartzeak zer ematen didan galdetu zidan lagun batek. Merezi al du?

Galdetu zidan muturra zimurtuta.

Orain artekoak, dudarik ez. Hamaika herritar norbere buruari, etxekoei eta koadrilakoei orduak lapurtuta aritzen dira. Baina herrigintzak eman ere egiten du. Merezi du. Kosta egiten zait lotsa galtzea eta sinpatikoa izatea, baina kaleak eta herriak horri buelta ematen lagundu dit. Balio izan du eta balio izan dit.

Ez dakit zer esango dudan hemendik lau urtera. Momentuz, ardura berriak hartzeko, aurrekoak utzi behar dira. Udalean egonda, ez dago *moila bazterrean* jarduterik. Horregatik, gaurkoa azken artikulua. Izango dugu elkarren berri aurrerantzean ere.



Gabon
TABERNA
plater *karrikak* deipuntxoak
Tfnor: 943.83.06.09

Goizeko
KAFFETEGIA
☎ 943 83 28 55
Ara Lantxurdi 33 barria - Orio
Autobus parada ondoan

libe
dietetika
elkarrizketak eta oinokuluzioak
esola guztiak 35 - Orio
943 53 64 94 - 943 23 66 36
lengua.zentzua@gorri.com

Orioko Herri Ikastola
Guraso Kooperatiba
ABESLARI KALEA, 8
TEL: 943 83 47 04
FAX: 943 13 09 38
orio@ikastola.net
www.oriokoikastola.net

Faroko bakailaia daukagu
ITSAS MENDI
gutzikiak
C/Iturriz Gaitan, 5 - Tel: 943 24 07 74 - Orio

Maidor Arrillaga Sarasola · 138. Kol. zenb.
Arrantza 63 · 20810 · Orio · Gipuzkoa
Tel. 943 575 361
oinarri
PODOLOGIA ZENTROA

iñaki argazkiak
caperochipi
ezkontzako asmarik bai?
www.ikapera.com/ezkontzak
659378751
ikape-ra@ikapera.com

Orioko Ogi
ORIOGI
OPIL OKINDEGIA
Frontal ondoan
Tfnor: 943 83 01 89

Parte hartzea eta herrigintza

Zer esan handia eman du Orion alkatearen aukeraketak, bezperan jakinarazi baitzuen Orainek Beñati emango zizkiola bere bi botoak. Ni bertan izan nintzen, prentsaurrekoan, eta tentsio handia nabaritu nuen. Baina handik tabernetara joan eta entzun nuen le-

hen komentarioa ondorengoa izan zen: *Orain, alkate berriarekin, ez dugu Bisiguaren Festarik izango, ez dute gaitasunik holakorik egiteko. Orain, herri bazkariak bakarrik egingo dituzte. Eta hori entzun nuenean, nire artean zera esan nuen: Zer dik, ba, txarra herri bazkari batek? Zergatik ez zaio jende bati herritarren parte hartzea ongi iruditzen?*



Antzerako zerbait gertatu zitzaidan hauteskunde bezperetan KARKARAko gutun bat irakurri nuenean. Gutun hartan, bilketa selektiboa hutsaren pare jartzen zen, eta oraingo zabor sistema goraipatzen. Hau da, zaborrak lur azpian egon behar omen duela esaten zen, eta kontainererra bota behar dela.

Hain txarra al da, ba, %75 inguru birziklatzen duen sistema bat ezartzea? Hainbeste kostako al zaigu egunean zabor kutxa bat ateratzea? Nik ez dut uste; ez dut espero, gainera, sistema berria inposatuko zaigunik, herritarroi informatuaz eta galdetuz herriaren nahia beteko dela baizik.

Eta, azkenik, Baia Eguneko egitarau bikoitzaren gainean mintzatu nahi nuke. Etxera KARKARA iritsi zitzaigunean eta ikusi genuenean bi egitarau zeudela, sentitu genuen lehengo gauza tristura izan zen. Horren ondorioz, jendea *herri-bitasun* horren aurka azaldu zen.

Haietako bat, hain zuzen ere, herritar bezala idatzi zuena izan zen, alegia, bi festa egongo zirela eta, bere kezka azaldu zuena. Herritar horrek kulpaz guztiona dela zioen. Agian, arrazoi izango du kulpaz ez dela batzuenak bakarrik, baina barrutik ikusi behar dira horrelako egoerak kulpaz jarduteko.

Etxetik oso erraz ikusten da, baina gonbita luzatu nahi nioke horrelako akatsak zuzendu nahi dituen jendeari, hemendik aurrera parte har dezaten horrelako edozein herri ekimenean.

Espero dezagun, hemendik aurrera, herritarren parte hartzea bermatuko dela eta herritarrek parte hartzeko duten nahia ez deza-tela idatziz bakarrik adierazi...

Tabernara joan eta entzun nuen lehen komentarioa ondorengoa izan zen: 'Alkate berriarekin ez dugu Bisiguaren Festarik izango, ez dute gaitasunik holakorik egiteko; orain, herri bazkariak bakarrik egingo dituzte'. Hori entzutean, nire artean esan nuen: Zer dik, ba, txarra herri bazkari batek? Zergatik ez zaio jende bati herritarren parte hartzea ongi iruditzen?

Momentu bat "por favor"

Udaleko Euskara Zerbitzuak, bi urtetik behineko bideari jarraituz, egin du neurketa, jakiteko oriotarrek egiten ote duten kalean euskaraz hizketa. Emaitzak ikusi eta pozik egotekoak dira, eginez gero orain dela bi urtekoarekin konparaketa.

Neurtu dute 4.000 lagunengoa jarduna eta Orioko haurra da Euskara gehien erabiltzen duen hiztuna.

Zaharrek ere erabiltzen dute euskara, baina gutxien hitz egiten dutenak helduak dira behar bada. Euskararen bidean gazte eta zaharren arteko zubi behar lukeen hori ez ote da ba izango traba?

Hitzen artean zubi lanak egiteko telefonoa baliatzen dugu askotan, baina euskarazko hitzak joaten ote dira telefonoaren sokan? Nire buruari hori galdetu, nik erantzuna eman behar eta zalantzaz sortu ohi zait holakotan.

Baina buruari bueltaka erantzuna baino adibide bat horra hor: udaletxera telefonoz deitu, Euskara Saileko luzapena sakatu, eta entzundako mezuari ezin ba egin entzungor, izan ere, emakumezko baten ahotsak honela dio: *un momento por favor*.

Nik eskatu behar dut faborez, kalean euskara entzun nahi izanez gero, lehengo, udaletxeko telefonogunea ahalik eta azkarren aldatzeko momentu bat itxaron ordez.

PATXI OLIDEN

Hemengo haragia.
Etxeko produktuak: tripa, odola,
txakorra, txoritza, krakotak...

Eusko Gudari, 25 Tel. 943 83 00 10

SARASUA ERRETEGIA

Plater bereziak

Arrain zopa
Arrain eta haragi erreak

Eusko Gudari, 29 **ORIO** Tel: 943 83 00 05/
943 13 25 32



GaleBask S.L.
Berrikuntzak
Gremioen arteko koordinazioa

638 610 349
Tel./Fax: 943 134 717
galebask@hotmail.com

www.galebask.com
Kale Nagusia, 2 -bajo
20810 ORIO

azkue
karrozeria



Ubegun industrialdea, 7
20809 Aia-Orio

Tel/fax: 943 83 51 86
Carroceriasazkue@hotmail.com

Izarra Bideoa

Eusko Gudari 44 / Arizaga 15. Orio 943 83 38 81

ESKERRIK ASKO!

Eskerrak eman nahi dizkizuet guztiak, azken **25 urteotan** zuengandik jaso dudak maitasun eta errespetuagatik. Bideo-makinak Arizaga 15ean jarraituko du. Datorren **uztailaren 7an** inauguratuko dugu denda berria Eusko Gudari 44an, eta han etxeko tresnak ere salduko ditugu. Espero dut zuen gustuko izatea.

TIEM 21

TAILER MEKANIKOA
MANTEROLA S/L



ESKERRIK ASKO! 64180147

Santiago ezua - 18 postakutxa
Tel. 943 830 743
Fax. 943 134 634
E-mail: tmmanterola@euskalnet.net
20 810 ORIO - GIPUZKOA

TMM

AENOR
R
193 9000

Esferako balbula
AENOR kalitate ziurtatutakoa



ANAIOR
XIXARIO

Paralelo Gudariak Kalea 22
20810 ORIO

TANATORIO ZARAUTZ

EUROFUNDIRARIAS TALDEA

Hilata eta zerbitzu orokorrak

- * Donostia eta probintziako ospitaleetan
- * Aldiarako zerbitzuak
- * Belatorio gelak
- * Korrika, eskolak, tranbiziak...

Araba kalea, 35. Zarautz

Tel: 943 89 48 77 | Fax: 943 89 48 41
e-mail: tanatorio@tanatorio.net

LUXARBE
Ingenieria

Igeltseritza orokorra, denetarik egiten dugu.

Presupuestoak eskatu konpromisorik gabe

Lan txukuna eta merkea

Tfnor: 943 83 59 00

Sukalde eta bainuen erreformak

XANTI MUJIKA
Igeltseritza

699 46 76 21
943 13 10 37



Sagasti
LEIHOAK

ROBERTO SAGASTI

Tel/fax: 943 13 00 77
sagasti@lehoak@telefonica.net
Arantzale kalea, 65
20810 Orio (Gipuzkoa)

IÑAKI ORBEGOZO



HURGAMENOA ETA HERRIKO KAMPORAK ZERBITZUA
EMPRESA ZERBITZUA
MEZULANITZA

TAXISERVICE

608 827 826

RAMIRO
argazkiak

www.fotoramiro.com
fotoramiro@fotoramiro.com

610 69 76 68
943 83 10 48

FISIO-TERAPIA - Gorka In Anleget eta Natalia Winiarski
REHABILITAZIOA - Gemma Argente

sinergia investigación fisioterapia

ibai ondo, 1, behe-nina | ORIO | 943 13 05 77 ~ 885 71 85 95

Gaia emanda Oinezkoak eta autozaleak

Gero eta toki gehiagotan neurriak hartu dituzte administrazioek, oinezkoen eta autoen elkarbizitza hobetzeko. **Zer egin liteke Orion eta zer egin da dagoeneko?**

Kalea denontzako izan daiteke

Herri eta hirietan autoak nagusi diren garaiotan, gero eta neurri gehiago hartzen ari da galdu-tako eremuak oinezkoek berreskuratzeko. Orion ere bai. Maiatzaren 3an zabaldu zen Aritzaga kaleko eremu berria, oinezkoei lehentasuna ematen diena. Horretarako, lehendik zeuden zutikako seinaleez aparte, lurreko marraz jarri ditugu autoen abiadura oinezkoen segurtasunera egokitzeko. Abiadura asko mugatu da: 10 km/h. Lurreko seinaleekin auto gidariei eta oinezkoei jakinarazi nahi izan diegu nork daukan lehentasuna, bidea partekatu eta elkar errespetatu dezaten.

Oinezkoek dute lehentasuna; baina, zerbait gertatuz gero, baita min hartzeko aukera handiena ere.

Errespetatzen al dugu abiadura muga? Herritar gehienak, egia da, nahiko poliki sartzen dira herrian, baina oso gutxi 10 km/h-ko abiaduran.

Espaloiak eta errepidea plataforma berean berdinduta daude hainbat lekutan. Berez, abantaila nabarmena da ibiltzeko zailtasunak dituenarentzat, esaterako, ezinduentzat, edadetuentzat... Baina eskarmentuak erakutsi digu autoen eta oinezkoen eremuak parekatuta, auto gidariei ahaztu egiten zaiela berek ere oinezkoak direla, eta, azkenean, oinezkoen eremua hartzen dutela beste ezertan pentsatu gabe. Espa-

loi horiek gutxitan egoten dira autorik gabe eta, sarritan, oinezkoek errepidetik pasa behar izaten dute, arriskua handituz. Horregatik, arkitektura-oztopo bat kentzeak beste oztopo batzuk jartzera behartzen gaitu, autoek oinezkoen lekuak ez hartzeko: piboteak, lorontziak, zakkarrontziak, eserlekuak...

Behin baino gehiagotan aipatu izan da herriko sarrera oinezkoentzako bakarrik bihurtzeko aukera. Horrek lehen aipatutako arazo guztiak saihestuko lituzke, baina baita beste batzuk sortu ere. Autoek, herritarrek, Txankatik barrena joan behar lukete herritik ateratzeko, eta hala koetan haserretu egiten dira. Gainera, gehienak Goiko kaletik ateratzen dira. Herriko sarreran saihesten diren ara-

zoak baino gehiago sortzen ditu horrek Goiko kalean. Goiko kalea ez baitago prestatuta halako ibilgailu kopurua hartzeko: kaleak oso estuak dira, zenbait lekutan ez dago espaloirik...

Zenbait egun berezitan eta ekitaldi zehatzetarako herriko sarrera oinezkoentzako jartzen da, baina praktikak erakutsi digu egun horietako gehienetan ere oinezkoak eta autoak pasatzea posible dela, ohi baino arrisku gehiago eragin gabe.

Herriko sarrera oinezkoentzako bihurtu daiteke, baina gogoa izan behar dugu erabaki horrek aurkia eta ifrentzua dituela; alde ona eta alde txarra, biak batera datozela. Eta gidariak jakin behar du oinezkoa ere badela eta ez ahaztu inoiz.

Jose Karrera

Orioko udaltzainburua


Herriko sarrera berez da arriskutsua oinezkoentzat eta oso garrantzitsua da autoen abiadura moteltzea hor

Oso garrantzitsua da herriko sarreran autoen abiadura moteltzea, herriko sarrera berez baita arriskutsua oinezkoentzat. Espaloiak oso estuak dira zenbait lekutan, eta egoera arruntak arriskutsu bihurtzen dira: ume kottearekin edo erosketa karrarekin pasa nahi izatea, euria egiten duenean norbaitekin gurutzatzea...





Parte hartu zuten guztiek batera kantatu zituzten Bailearen bertsoak, bandak eta dantzariak lagunduta. KARKARA



Kritika Kontzertua

Musika Eskolaren 25. urteurreneko kontzertua, Ekainaren 18an Karela kiroldegian emandako kontzertuaren kritika

Ez nekien zer entzun eta zer ikusiko nuen ere, Orioko musika eskolak antolatutako kontzertuan. Berezia zen. 25 urte betetzen zituen gure eskolak eta nola-hala ospatu behar. Erdi-erditik asmatu zuten. Gaur musika eskola osatzen duten irakasleek bete-betean eman ziguten bihotzean kontzertura azaldu ginen oriotarroi.

Bi ordukoa izan zen, eta motza egin zitzaigun, nahiz

eta *Axuerok* pixka bat desafinatu. Nire aldamenean zegoenak behintzat belarri oso ona izango zuen, etengabe ari zen-eta *Axuerok desafinatu egin dik* esanez.

Bai. *Axuro* eta beste herri-tar ugari izan ziren gonbidatuak kontzertuan parte hartzeko. Baita parte hartu ere! Orion ez dugu galdu oraindik kantatzeko ohitura eder hori. Harmailetan ginenok ere abestu genuen, behintzat.

Musika eskolakoak ez ziren konplikatu planteamen-duan. Zorionak! Oso zaila da ez konplikatzeko. Partituran sobera zeuden notak kentzea zela konposatzerakoan gauzarik zailena, esaten zuen Brahms konpositoreak. Eta hori ongi egin zuten profesio-

nal puska horiek. Ezin hobeto. Konplikatu gabe, baina sendoa. Serioa. Oso zaila da musika eskola batean hainbeste talde desberdin izatea, sortu zutenek sekulako poza izango dute gaur egun. Irakasleek lan zoragarria egin zuten. Irakasleek beren une polita izan zuten.

Baina aipagarriena kiroldegiko giroa. Inork ez zuen etxera joan nahi. Hori poza! Jarraitu beste 25 urtez, mesedez. Horrela, gainera, *Axuerok* ere beste aukera bat izango luke, ongi kantatzen ikasi eta, ez desafinatzeko.



XABIER LIZASO

Irakasleak idazle Ane Arriola

Ondorioez jabetzen ikasi

Gaur egun, gero eta gazteago hasten gara alkohola kontsumitzen; eta askok eta askok kontrolrik gabe, gainera. Ez diogu garrantzirik ematen eta oraindik ez gara gai ekar ditzakeen ondorioez konturatzeko. Izan ere, ondo pasatzean besterik ez dugu pentsatzen. Disfrutatu eta lagun berriak ezagutzean bakarrik kontzentratzen gara, beste guztia ahaztuta.



Egia esan, ez zait batere gaizki iruditzen ondo pasa nahi izatea, egunbater arazoak alde batera utzi eta, behin bada ere, ongi disfrutatu eta aprobe-txatzea. Baina beti ere, alkoholaren kontsumoari erreparatuz. Gainera, zer demontre, ez ote dakigu alkoholik gabe ongi pasatzen? Ez al gara horretarako gai? Alkoholak egiten ote gaitu zoriontsu? Ez horixe! Nik uste alkoholarekin pasatu gabe ere, gau ona pasa dezakezula! Badakizue: Gozatu, ez tronpatu!

Gainera, zer demontre, ez ote dakigu alkoholik kontsumitu gabe ongi pasatzen? Ez al gara horretarako gai?



» INKESTA

Zer iruditzen zaizu egunero erabiltzen diren errepideetan auto lasterketak egitea?

154 erantzun jaso ditu galderak. 42 alde agertu da, 103 kontra, 7ri bost axola zaio kontua eta 2k ez dakite zer esan gai honen inguruan.

» OSPAKIZUNA



25 urteko bidaiari aurrera

25 urte egingo ditu aurten Izarra bideo dendak. Bide luze horretan Aritzagako lokalean egon da beti denda eta, aurten, 25 urte beteta, beste bat zabalduko du Eusko Gudari kalean. Izarra Atorrasagasti nagusiak esker ona adierazi nahi die herritarrei, oraindik aurrera egiteko gogoa eta ilusioa baitu horiei esker. Hemendik aurrera ere arreta hobetzen segiko duela esan digu, bidaiari ahalik eta luzeena egiteko.



HURRENGO GALDERA

Oporretan herritik kanpora joatea beharrezkoa al da hobeto pasatzeko?

Erantzun ezazu www.karkara.com webgunean eta emaitza 303. KARKARAN argataratuko dugu.

» ZORITXARRAK!

Estropadetako epaileei

Azken aulki mugikorreko estropadetan, uretako epaileek ez zuten hitz bat bera ere esan euskaraz.

Garai hauetan oraindik ere epaileek euskaraz ez egitea —non eta Orion— larria da, eta horri aurre egiteko, Orioko Arraun Elkartek, antolatzailer den aldetik, gutxienez hori eskatu beharko lioke dagokionari.

Bide batez, estropaden ondoren, zaborra asteazkena arte egon zen Dikeko parke inguruetan, eta zikinkeria bota zutenei eta hurrengo egunerako garbitzea zego-kionari ere kexa azaldu nahi diegu.





Gabriel Loidi Aiako Xegula, bere andrearen baserriaren aurrean. LOIDI FAMILIA

Gerra ondokoak

Oroimenaren kutxa

Juan Jose Loidik ondo gogoan du: mutil koskorra zela, arrantzan zegoen Orioko putzu ixkinan, aitarekin pantxoak harrapatzen. Manuel aguazila bila etorri zitzaion aitari, laguna zuen, eta biak batera joan ziren. Handik pixka batera, mutiko bat etorri eta etxera joateko esan zion Juan Joseri. Aita despeditzeko zen, kartzelara zihoan, bigarren aldiz. Gabriel Loidi, aita, tren hartu eta kartzelara joan zen, bere kabuz, bakarrik, eskoltarik gabe, Asturiasera, etxean andrea eta 3 seme-alaba utzita. Lehen ere egona zen kartzelan, gerra bukatu

berritan urte batzuk paseak zituen Burgoseko presondegian. Bigarren aldi hartan, herriko batek salatuta izan zen. Gabriel Asturiaseko Trubiako kanoi fabrikan egon zen, *batallon de trabajadores* batean. Ez zuen suerte handirik izan. Edo beharbada, bai! Teodoro Mitxelenaren adiskidea zen Loidi. Teodoro fusilatu egin zuten Orioko gainean, ELAkoa izatea bere erru guztia, bere delitua. Aurten 75 urte dira harena. Gabrieleke, bi kartzelaldiak eginda ere, bizitza luzea izan zuen: bizirik zen Franco diktadorea 1975ean hil zenean; eta 1977ko urtarrilean, gerra garaiko Orioko Udaleko ikurri-na, herriarrek kalejiran, berriro udaletxera eramateko ohorea izan zuenean, ge-

rran bera bezala gudari ibilitako Jose Mari Solaberrieta-rekin batera.

Gabriel Asturiaseko kartzelatik bueltatuta, egun batean Orioko zubian zihoala, ezagun batek esan zion: *Ba al dakik zein hil den, hi salatu hinduena*. Biharamunean Gabriel haren hiletan izan zen. Barkatuegin zion. Oraindik ondo oroitzen da Juan Jose Loidi, aitarekin arrantzan zegoen mutil koskor hura, orain aitonduta baldin badago ere. Begietan malkoak zituela gogoratu zuen bere bizitzako pasarte hori, orain ere euskal gizarteak horixe behar duela erantsiz: barkatzea.

[IÑAKI ITURAIN]

» JAIOTAKOAK

- Jon Bravo Garmendia, Orion, ekainaren 14an.
- Udane Uranga Landa, Orion, ekainaren 8an.
- Maren Manterola Gaztañazpi, Orion, ekainaren 5ean.
- Julen Encinas Illaramendi, Orion, ekainaren 2an.
- Malen Olaskoaga Etxeberria, Orion, maiatzaren 31n.

» EZKONDUTAKOAK

- Joseba Brit Elola eta Amanda Maye Gonser, Orion, ekainaren 18an.
- Elixabete Iradi Abad eta Gorka Hernandez Ramirez, Orion, ekainaren 11n.
- Igor Ikutza Azurmendi eta Nere Ezpeleta Bereziartua, Orion, ekainaren 11n.
- Maider Sukia Etxeberria eta Egoitz Etxeberria Etxeberria, Orion, ekainaren 4an.
- Ibon Aranzabal Urbieta eta Ane Cano Kortajarena, Orion, ekainaren 2an.

» HILDAKOAK

- Escolastica Ortega Intxauspe, Orion, ekainaren 16an. 86 urte.
- Guadalupe Perez Villar, Orion, ekainaren 7an. 83 urte.

Eskela edo urteurreneko gogoangarria Karkaran jarri nahi baduzu, deitu gure telefonora:
943 83 15 27

LURDES
AKZELERAZI

Eusko Gudari, 4- Tel. 943 83 00 24

De gure ondegia
MARIJO

Neska eta mutilentzat

Eusko Gudari, 8 - bajo
Tel. 943 13 47 29
ORIO

arraztegia
MIRANDA

Gelma eta leku eskutera...
bela ilun ama-lanak
egun dirketegia

Urdaizeta bidean, 1-669 42 82 70- ZARAUTZ

ODITZ

Prima kalitateko kontaktua
eguneko eraberritzea

Tel. 943 83 00 80

“Tronpetako ikasle izandakoekin harremana mantentzen dut oraindik”

Joxerra Salaberria

Tronpeta irakaslea

Danbolin musika eskolak 25 urte beteko ditu eta 17 egingo ditu bertan irakasle lanetan denbora gehien daramanak. Urte luzeotako ibilbidean musika eskolak izan dituen aldaketak ahotan hartu eta tronpeta doinuz kontatu dizkigu Joxerra Salaberriak.

IRATI AGIRREAZALDEGI

Lezokoa da Joxerra Salaberria, Danbolin musika eskolako beste hiru irakasle bezala. 1994an hasi zen, Xabier Lizaso zuzendari zela. Kontserbatoriotik harreman ona izanik, eskolak emateko deitu zion. Gaur egun, Orion, Lezon, Eibarren eta Lasarten da tronpeta irakaslea.

Zuretzat zer da musika?

Artea, zaletasuna, ofizioa, dena. Etxean, aitek danborra jo eta koruan abesten zuen. Ni, nahigabe, mundu horretan sartu eta pixkanaka sakonduz joan nintzen. Errenterian hasi nituen musika ikasketak eta gero, Donostiako kontserbatorioan goi mailako ikasketak bukatuta, musika irakasle lanei ekin nien.

Orioko musika eskolan 25 urte hauetan aldaketa asko izan dira, ezta?

Aldaketak arlo guztietan izan dira. Lekuari dagokionez, lehen udaletxe zaharreen geunden eta ni hasi aurretik beste toki batean ere egon zen eskola. Mediorak ere asko hobetu dira.

Ezberdintasun handiena jendearen konpromisoan nabaritu dut. Lehen orain baino handiagoa zen, izena ematen zuena benetako gogoz hasten zen. Gaur egun, musikaz gain, aukera asko dituzte neska-mutilek: dantza, ingelesa, kirola, dotrina... Lehen bi aukeratu arren, horietan gehiago saiatzen zirela uste dut. Ona da denetarik pixka bat jakitea, baina... Lehen etxeko lanak ere gehiago izaten ziren. Kontserbatorioko metodologia zorrotzagoa zen eta ikasturtea gainditzeko ariketa zehatzak egin beharra zegoen, orain ikaslearen arabe-

ra moldatzen da, eta malgutasun gehiagoz egiten da lan. Ikasleei dagokienez, gaur egun lehenago hasten dira eta konfiantza gehiago dagoenez, dena arinagoa dela esango nuke.

Musika tresnei dagokienez ere, eskaintza zabalagoa da orain. Hasieran 3-4 tresna jotzen irakasten zen: pianoa, soina, biolina eta tronpeta. Orain dozena bat izango dira: bandako instrumentu guztiak, orkestrako ia denak eta tradizionalak: txistua, txalaparta, trikitixa...

Musika eskolak emango zizkizun une politak, ezta?

Ikasturte bukaerako emanaldiak handiak izaten dira. Niretzat oso politak. Musika eskolako ia kide guztiok parte hartzen dugu eta denak elkartzea zaila den arren, ongi ateratzen dira. 25. urterreneko kontzertua ere berezia izan da. Beharbada, musikalki ez da izugarria izan, baina hainbeste herritarrek bat egiteak xarma berezia izan du.

“Ezberdintasun handiena jendearen konpromisoan dago. Lehen orain baino handiagoa zen, ikaslea benetako gogoz hasten zen”

“Inoiz gertatu izan zait, Kontxako estropadetan, tronpeta soinuak entzun eta gerturatutakoan Orioko nire ikasleak izatea”

Zure eskutatik pasatako ikasleen ibilbidea jarraitzen duzu?

Benetan betetzen nauena haiekin oraindik harremana edukitzea da. Musika eskolako zikloa bukatu arren, oraindik deitzen didate eta ikusten ditut. Txaranga tronpeta jotzaileak nire ikasle izan dira, eta gertatu izan zait Kontxako estropadetan, tronpeta soinuak entzun eta Orioko nire ikasleak izatea. Musika taldeekin ere jotzen dute, Gozategirekin, Bizkaiko talderen batekin...

Nola ikusten duzu musika eskolaren etorkizuna?

Musika Eskola lan handia egiten ari da eskaintza zabaltzeko, eta ikasleak gustura egoteko. Jende gehiago erakartzea lortuz gero, gauzak ongi egiten ari garen seinale izango da. Ikasleei musikarekiko zaletasuna sortzea zaila da, baina probatzeko esango nieke eta gustuko dutenak lotuta geratuz gero, primeran.



KARKARA

» AZOKA

Iragarkietarako txokoa. Iragarri nahi duzun hori telefonoz (943 83 15 27) zein e-postaz bidali dezakezu: karkara@karkara.com. Merke asko, gainera, doako zerbitzua baita gurea.

Errenta

■ Etxea alokatzeko. Anibarko Portuan. Bi logela ditu eta urte osorako alokairuan eskaintzen da. Telefona: 615757648.

■ Bi edo hiru logelako etxea hartuko nuke errentan. Tf.: 662 3113 20 eta 9431317 47 (Cristian).

Saltzeko

■ Intxaurrek dauzkat saltzeko. Tf.: 943 83 44 98.

■ Egongelako gerezizko altxaria salduko nuke. Baita gaztetxoentzako literadun logelako altzariak ere. Tf.: 678532304 (Jaione).

■ Garaje itxia salgai Ibai Ondon. 21,70 metro koadro; 3 metroko altuera. 45.000 euro. Interesatuak deitu 627 63 8776ra.

■ Garaje itxia salgai Mendibeltez futbol zelaiaren azpian. 20,67 metro koadro. Telefono zenbakiak: 646 28 99 07 630 37 0138.

Lan Eskaera

■ Emakume etorkinak adinekoak zainduko lituzke. Etxean bertan biziko lituzte. Interesatuak deitu telefono zenbaki honetara: 663 11 75 79 (Rosa).

■ Uda partean, goizez, 14 urte bitartekoei banakako eskolak emango nizkieke. Neska oriotar euskalduna. Tf.: 664 24 82 34.

■ Neska euskalduna umeak zaintzeko prest, arratsaldez. Eskarmentua daukat. Interesatuak deitu lasai. Tf.: 679 85 23 41.

■ Neska arduratsuak etxeak garbitu edo edadetuak zainduko lituzke. Deitu Tf.: 600 74 56 86.

■ Neska gazteak etxeak garbitu edo haurrak zainduko lituzke uda honetan. Tf.: 666 29 75 01.

Galdutakoak

■ Ekainaren 11n, arratsaldetik 7:30 aldera ikastolako parkean ume kotxea ahaztuta utzi genuen, Macclaren markakoa, grisa eta letra horiekin. Kotxe azpiko sarean, umearen jertse beltza eta grisa zegoen. Norbaitek jaso badu, eskertuko genioke bueltaztea. Tf.: 626 99 50 05

» ITSASOA

EGUNA	ITSASGORA	ITSASBEHERA	ILARGIA
24	11:49 eta ___	05:28 eta 17:56	
25	00:10 eta 12:51	06:28 eta 19:01	
26	01:12 eta 13:51	07:29 eta 20:03	
27	02:12 eta 14:44	08:24 eta 20:57	
28	03:06 eta 15:31	09:13 eta 21:44	
29	03:55 eta 16:13	09:57 eta 22:27	
30	04:39 eta 16:54	10:37 eta 23:08	
01	05:21 eta 17:35	11:17 eta 23:49	
02	06:02 eta 18:16	11:57 eta ___	
03	06:44 eta 18:58	00:30 eta 12:39	
04	07:28 eta 19:34	01:13 eta 13:22	
05	08:13 eta 20:29	01:57 eta 14:08	
06	09:01 eta 21:19	02:44 eta 14:56	
07	09:53 eta 22:13	03:34 eta 15:49	
08	10:50 eta 23:15	04:28 eta 16:48	

» ZAINZAKO BOTIKAK

EKAINA

■ 24tik 26ra, Lasa.

■ 27an, Azaldegia.

■ 28an, Larrañaga.

■ 29an, Gallo.

■ 30ean, Barrenetxea.

UZTAILA

■ 1ean, Zulaika.

■ 2an eta 3an, Larrañaga.

■ 4an, Gallo.

■ 05ean, Azaldegia.

■ 06an, Barrenetxea.

■ 07an, Iriarte.

■ 08an, Larrañaga.

■ 09an eta 10ean, Mutiozabal.

■ 11n, Azaldegia.

■ **Azaldegia:** Urdaneta kalea, 8

943133183 Zarautz

■ **Barrenetxea:** Gipuzkoakalea, 17

943832398 Zarautz

■ **Mutiozabal:** Kale Nagusia, 12

943832970 Zarautz

■ **Larrañaga:** S. Frantzisko, 16

943133814 Zarautz

■ **Lasa:** Herriko plaza.

943830936 Orio

■ **Gallo:** Zigorria kalea, 17

943134019 Zarautz

■ **Iriarte:** Zinkunegi, Pilartxo

Enea, 943132983 Zarautz

■ **Zulaika:** Bizkaia kalea, 41

943133994 Zarautz

» TREN ORDUTEGIAK

DONOSTIA-ZARAUTZ

Donostia 5:47 6:17 6:47 7:17 7:47 8:17 8:47 9:17 10:47 11:47 12:17 12:47 13:17 13:47 14:17 14:47 15:17 15:47 16:17 16:47 17:17 17:47 18:17 18:47 19:17 19:47 20:47 21:47

Aia-Orio 6:11 6:41 7:11 7:41 8:11 8:41 9:11 10:11 11:11 12:11 12:41 13:11 13:41 14:11 14:41 15:11 15:41 16:11 16:41 17:11 17:41 18:11 18:41 19:11 19:41 20:11 21:11 22:11

Zarautz 6:19 6:50 7:20 7:50 8:20 8:50 9:20 10:20 11:20 12:20 12:50 13:20 13:50 14:20 14:50 15:20 15:50 16:20 16:50 17:20 17:50 18:20 18:50 19:20 19:50 20:20 21:20 22:20

ZARAUTZ-DONOSTIA

Zarautz 6:08 6:38 7:08 7:38 8:08 8:38 9:08 10:08 11:08 12:08 12:38 13:08 13:38 14:08 14:38 15:08 15:38 16:08 16:38 17:08 17:38 18:08 18:38 19:08 19:38 20:08 21:08 22:08 22:40

Aia-Orio 6:15 6:45 7:15 7:45 8:15 8:45 9:15 10:15 11:15 12:15 12:45 13:15 13:45 14:15 14:45 15:15 15:45 16:15 16:45 17:15 17:45 18:15 18:45 19:15 19:45 20:15 21:15 22:15 22:47

Donostia 6:39 6:50 7:20 7:50 8:20 8:50 9:20 10:20 11:20 12:20 12:50 13:20 13:50 14:20 14:50 15:20 15:50 16:20 16:50 17:20 17:50 18:20 18:50 19:20 19:50 20:20 21:20 22:20

Gipuzkoan garraiatzeko begira: www.mugitu.com. Grisez dauden orduetan trenak daude asteburuetan.

» AUTOBUS ORDUTEGIAK

LANEGUNETAN

DONOSTIA-ZARAUTZ

Donostia 6:55 7:40 8:10 8:40 9:10 9:40 10:40 11:40 12:10 12:40 13:10 13:40 14:10 14:40 15:10 15:40 16:40 17:40 18:10 18:40 19:10 19:40 20:15 21:00 22:15

Orio 7:25 8:15 8:45 9:15 9:45 10:15 11:15 12:15 12:45 13:15 13:45 14:15 14:45 15:15 15:45 16:15 17:15 18:15 18:45 19:15 19:45 20:15 20:50 21:35 22:50

Zarautz 7:35 8:25 8:55 9:25 10:25 11:25 12:25 12:55 13:25 13:55 14:25 14:55 15:25 16:25 17:25 18:25 19:25 19:55 20:25 21:00 21:45 23:05

ZARAUTZ-DONOSTIA

Zarautz 6:45 7:15 7:45 8:15 8:45 9:20 9:45 10:45 11:45 12:45 13:20 13:45 14:20 14:45 15:20 15:45 16:45 17:45 18:45 19:45 20:45 21:15

Orio 6:55 7:25 7:55 8:25 8:55 9:30 9:55 10:30 10:55 11:55 12:55 13:30 13:55 14:30 14:55 15:30 15:55 16:30 16:55 17:55 18:55 19:30 19:55 20:55 21:25

Donostia 7:30 8:00 8:30 9:00 9:30 10:10 10:30 11:10 11:30 12:30 13:30 14:10 14:30 15:10 15:30 16:10 16:30 17:10 17:30 18:30 19:30 20:15 20:30 21:30 22:00

Lanegunetan, grisez dauden orduetako autobusak pasatzen dira Urbiletik.

ASTEBURUETAN

DONOSTIA-ZARAUTZ

Donostia 8:00 9:00 10:00 11:00 12:00 13:00 14:00 15:00 16:00 17:00 18:00 19:00 20:00 21:00 22:00 23:00

Orio 8:35 9:35 10:35 11:35 12:35 13:35 14:35 15:35 16:35 17:35 18:35 19:35 20:35 21:35 22:35 23:05

Zarautz 8:45 8:45 9:45 10:45 12:45 13:45 14:45 15:45 16:45 17:45 18:45 19:45 20:45 21:45 22:45 23:15

ZARAUTZ-DONOSTIA

Zarautz 6:45 7:45 8:45 9:45 10:45 11:45 12:45 13:45 14:45 15:45 16:45 17:45 18:45 19:45 20:45 21:45

Orio 6:55 7:55 8:55 9:55 10:55 11:55 12:55 13:55 14:55 15:55 16:55 17:55 18:55 19:55 20:55 21:55

Donostia 7:30 8:40 9:40 10:40 11:40 12:40 13:40 14:40 15:40 16:40 17:40 18:40 19:40 20:40 21:40 22:40

Asteburuetan, autobus guztiak pasatzen dira Urbiletik. Grisez dauden orduak larunbatetako (lanegunako) zerbitzuei bakarrik dagozkie.

Aia eta Orio arteko autobus zerbitzua Landabusek darama. Zerbitzuei buruzko informazioa lortzeko zenbait bide daude: www.landabus.com, Tf. 943 240114 sms-a 5280 zenbakira



busti zaitetz

Busti zaitetz esklerosiarengatik

Esklerosi Anizkoitzaren berri emateko 'Busti zaitetz' lelotzat hartu eta Herriko Plazan informazio mahaia jarriko dute Esklerosi Anizkoitza Eugenia Epaltza Euskal Fundaziokoek uztailaren 10ean, 10:00etatik 15:00etara bitartean. Kanpaina horrekin gaixotasun sendaezinak sortzen dituen arazoak jendartera zabaltzeaz gain, gaixoen bizi kalitatea hobetzeko dirua bildu eta kamisetak salduko dituzte.

Orio

Bertsolaritza

- Uztailaren 8an, bertso afa-ria, Kanpinean.
- Abuztuaren 12an, bertso saioa Gorka Azkarate, Arkaitz Oiartzabal Xamoa, Ibai Esoain eta Xabier Sukia bertsolariekin, 22:30ean, Kolon Txiki tabernan.

Informatika

- Ekainaren 27an, *Twitter* informazio sareari buruzko ikastaroa. 16:00etatik 18:00etara, KZ gunean.
- Uztailaren 1ean, argazkiak editatzeko *Picnik* aplikazioari buruzko ikastaroa. 09:00etatik 11:00etara, KZ gunean.
- Uztailaren 4an, *Skype* programari buruzko ikastaroa. 11:00etatik 13:00etara, KZ gunean.

- Uztailaren 7an, Blogak sortzeko *Blogger* atariari buruzko ikastaroa. 11:00etatik 13:00etara, KZ gunean.
- Uztailaren 13an, *Writter* ikastaroa. 11:00etatik 13:00etara, KZ gunean.
- Uztailaren 19 eta 20an, *meta postontziari eta gordailu elektronikoari* buruzko ikastaroa. 11:00etatik 13:00etara, KZ gunean.

Erakusketak

- Uztailaren 14tik 29ra bitartean, *Egun bat arrantzan* erakusketa, 09:00etatik 13:00etara, kultur etxean..

Kulturetxea

- Ekainaren 22tik uztailaren 29ra eta irailaren 1etik 10era bitartean, goizez (09:00-13:00) bakarrik egongo da irekita kultur etxea. Abuztuaren itxi egingo dute.

Eliza

- Uztailaren 1ean, batzar irekia elizako obren berri emateko (Aurrekontuak...). 20:00etan, elizan.
- Uztailaren 4an, auzolana, bankuak... elizatik ateratzeko. 09:00etan, elizan.
- Uztailaren 4an itxiko da eliza obretarako. Egun horretatik aurrera, lanak bukatu bitartean, astegunetako meza parrokiako saloian izango da; asteburuetakoak eta hiletak Ikastolako aretoan.

Zinema

- Uztailaren 9an eta 30ean eta abuztuaren 6an eta 13an, zinema emanaldiak. 22:00etan, hondartzan.

Haurrak

- Abuztuko ostegunetan, haurrentzako emanaldiak. 18:00etan, plazan.

Aia

San Joan festak Iturriotzen

- Ekainaren 24an, erromeria, Tapia, Leturia eta Ostolazarekin, gauean.
- Ekainaren 25ean, meza, 12:00etan. Ondoren, hamai-ketakoa eta haur jolasak, Ander Beldarrain trikitilariak alaituta. Gauean, erromeria Kupela taldearekin.
- Ekainak 26, bazkaria. Bertsolariak: Olaso, Beñat Lizaso eta Urdangarin. Trikitilariak: Ansorregi eta Larrañaga. 13:30ean, Izurtzu erretegia.

Txirindularitza

- Ekainaren 24an, XXII. Gazte mailako Gipuzkoako itzulua. Prologoa. Erlojuaren aurka bakarkako proba. 19:00etan, Etxetxotik hasita.
- Uztailaren 23an, II. Junior mailako txirindulari saria.

Silo Bolak

- Uztailaren 12an eta abuztuaren 9an, silo-bolen bilketa. Informazioa: 943 81 65 00 (Urkome)/660 04 97 51 (Igor).

Podologia

- Uztailaren 16an. Ordua hartzeko deitu 943 13 11 44ra.

18. LITERATUR LEHIAKETA

orioraia

- 'Euskaraz Gazte' literatur lehiaketaren helburua idazteko zaletasuna suspertzea da Orioko eta Aiako gazte-jendearen artean.
- Lehiaketara aurkezten diren lanak euskaraz idatziak izango dira.
- Lanak jatorrizkoak eta inon argitaratu gabeak izango dira. Ez da onartuko beste lehiaketaren batean saria jaso duen lanik eta, ezta ere, beste hizkuntzaren batean idatzi eta lehiaketarako euskaratutakorik.
- Lehiaketan parte hartzeko, oriotarra edo aiarra izan behar da edo, bestela, Orion edo Aian bizi, eta 16 urte beteta izan behar dira.
- Lanen luzera librea izango da.
- Epaimahaiak gaiaren gertutasuna baloratuko du.
- Lehiaketak bi atal izango ditu: ipuina eta bertsoa (edo olerkia).
- Gaia librea izango da.
- Lanak aurkezteko era:**
Lanak, onartua izateko, titulua besterik ez du izango agerlan. Idazlearen izena ezin izango da inon aipatu. Lanarekin batera kartazal itxi bat aurkeztu beharko da, barruan egilearen datuak jasoko dituen eta kanpoan bere lanaren titulua besterik agertuko ez duena.
Adierazi beharreko datuak: egilearen izen-deiturak, adina, helbide elektronikoa eta telefonoa.
- Pertsona batek ezin dezake sari bat baino gehiago jaso atal bakoitzean.
- Sariak hauek izango dira:
Ipuinen atala
1. saria: 300 euro
2. saria: 200 euro
3. saria: 150 euro
Bi accessit, bakoitza 100 eurokoa
Bertso edo olerkien atala
1. saria: 300 euro
2. saria: 200 euro
3. saria: 150 euro
Bi accessit, bakoitza 100 eurokoa
- Epaimahala.** Epaimahaia Orioko Udaleko ordezkari batek, Aiako Udaleko ordezkari batek eta KARKARA aldirikako kide batek osatuko dute.
Epaimahaiak hutsik utz ditzake sariak.
- Lanak aurkezteko tokia eta epea.**
Lanak Orioko Udaleko Euskara Zerbitzuan edo Aiako kultur etxean aurkeztuko dira.
2011ko irailaren 30a izango da horretarako azken eguna.
- Antolatzaileek berea izango dute saritutako lanak argitaratzeko eskubidea. Gainontzeko lanak itzuli egingo zaizkio eskatzen dituenari.

